



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

2026ko urtarrila


---

# BERBA-LAPIKO

Garapen metodologikoa ahozko  
konpetentzietan aurrera egiteko

**Ikerketa 3.0**

---



### **Proiektuaren Garapen Taldea:**

Olatz Bengoetxea Manterola – Soziolinguistika Klusterra – *Koordinatzailea*  
Paula Laita Pallares – Soziolinguistika Klusterra  
Agurtzane Azpeitia Eizagirre – Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) – *Zuzendaria*

### **Sekuentzia Didaktikoaren lantaldea:**

Leire Diaz de Gereñu Lasaga – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)  
Ibon Manterola Garate – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)

### **Berritzegune Nagusiko Aholkulariak**

#### **Sustatzailea**

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila  
Soziolinguistika Klusterra

#### **Txostenaren idazleak:**

Paula Laita  
Agurtzane Azpeitia  
Iradi Sagredo Tolosa

Soziolinguistika Klusterra Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain 943 592 556  
<https://soziolinguistika.eus/eu/> [kluster@soziolinguistika.eus](mailto:kluster@soziolinguistika.eus)

2026ko urtarrila




Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziarekin zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

0	SARRERA .....	3
1	IKERKETA 3.0: HIZKUNTZA ERRUTINA (LH1-LH4).....	5
1.1	IKERKETAREN FASEAK.....	9
1.1.1	Ikastetxearekin harremana (2024ko URRIA) .....	9
1.1.2	Irakasleen prestakuntza (2024ko URRIA-ABENDUA) .....	9
1.1.3	Metodologiaren inplementazioa (2025eko URTARRILA-MARTXOA).....	9
1.1.4	Datu bilketa (2025eko URTARRILA - MARTXOA) .....	10
1.1.5	Datu kudeaketa (2025eko OTSAILA - UZTAILA).....	10
1.1.6	Analisia (2025eko APIRILA - URRIA) .....	10
1.1.7	Emaitzak (2025eko AZAROA - ABENDUA) .....	10
1.1.8	Materialetan egokitzapenak (2025eko IRAILA - URRIA) .....	10
1.1.9	Txostena eta ikastetxeei feedbacka (2025eko ABENDUA).....	10
1.2	AZTERKETA: IKASLEEN AZTARNAK.....	11
1.2.1	Azterketarako adierazleak.....	12
1.2.2	Azterketarako tresna: Errubrika eta adierazle kuantitatiboak.....	15
1.2.3	Corpusa.....	16
1.3	EMAITZAK .....	17
1.3.1	A ikastetxea .....	17
1.3.2	B ikastetxea .....	28
1.3.3	C ikastetxea .....	41
1.4	IKERKETAREN ONDORIO OROKORRAK.....	51
2	SEKUENTZIA DIDAKTIKOA (LH5 - LH6): 2025EKO ESPERIMENTAZIOAREN INGURUKO BALORAZIOA.....	53
3	ONDORIO NAGUSIAK .....	56

## 0 SARRERA

2025. urtean, aurreko ikasturteko ildo berari jarraituz, Berba-lapiko proiektuan hiru ildo jarri dira abian, beheko irudian ikus daitekeen moduan: *Hedapena ikastetxeetan*, *Ekintza-Ikerketa 3.0* eta *Digitalizazioa*.

Txosten honetan, berariaz, bigarren ildoari helduko zaio: *Ekintza-Ikerketa 3.0*.



1. irudia. Berba-lapiko proiektuaren ildoak

Berba-lapiko egitasmoa ARRUE programaren baitan kokatzen da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantziatutako dirulaguntzaren bidez. Egitasmoa Soziolinguistika Klusterrak abiatu zuen 2017-18 ikasturtean HUHEZIKo zuzendaritzarekin batera. EHUko ELEBILAB ikerketa-taldeak ere parte hartu zuen proiektuaren hasierako urteetan.

Berba-lapiko proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta konpetentzian sakontzeko proposamena da, batik bat testuinguru soziolinguistiko erdaldunetan kokatuko dena. Prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu nahi da, euskararen ahozko konpetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan, metodologia berriztatzean eta ikasleen garapen adierazleetan.

Txosten honetan, 2025an garatutako lan-ildo horietako batean jorratutako lanak jaso dira:


- **Ekintza-ikerketa 3.0: hizkuntza errutina (LH1-4)** LH3ko ikasleen ahozko garapen-aztarnak ikertu dira luzetarako begirada batetik (hau da, bi hilabetean zehar aurretetuetatik ondoretuetara egindako jauzia aztertuz).
- Osagarri gisa, **LH5-6 mailetan garatutako sekuentzia didaktikoa:** 2025eko pilotajearen inguruko balorazioa.

# 1 IKERKETA 3.0: HIZKUNTZA ERRUTINA (LH1-LH4)

Berba-lapiko egitasmoa hedatzeko irakasleen prestakuntza eta aholkularitza gauzatzeaz gain, funtsezkoa da metodologiak izan duen inpaktua ikertzen jarraitzea. Horretarako, aurren ere 3.0 Ikerketarekin jarraitu da. Lau urteko ikerketa honen baitan, EAEko 3 ikastetxe ari dira parte hartzen.

Jakin badakigu hizkuntzaren irakaskuntza ez dela mugatzen hiruileko bakarrera; aitzitik, arnas luzeko bidea da eta horrek hurbileko jarraipen sistematizatua egitea eskatzen du. Ikuspegi horretatik, 3.0 ikerketan **begirada longitudinal** hori txertatu nahi izan da. Horretarako, bi ildo jorratzen ari dira:

- Lehenengo ildoaren helburua da ikasturteka **ikasleen garapen aztarnak** aztertzea; hau da, Berba-lapiko metodologia inplementatu aurretik, ikasleen maila zein den ikusi, eta metodologia inplementatu ondoren zein jauzi egin duten aztertzea.
- Bigarren ildoan behatu nahi da, maila luzeago batean, hau da, **lau urtez metodologia inplementatu ondoren**, zein aurrerapen egon den ikasleen ahozko hizkuntzan. Azterketa hori bi modutan gauzatuko da. Batetik, proiektuan parte hartu duten ikasleak LH4. mailara iristean ekoizten dituzten ahozkoak (talde esperimentalak) Berba-lapiko proiektuan parte hartu ez duten laugarren mailako ikasleen ahozko ekoizpenekin erkatuko dira (kontrol taldea). Horrela, alderik dagoen ala ez ikusi nahi da eta aldeak, egon baleude, zehazki zein dimentsio eta adierazletan gertatu diren aztertuko da. Bestetik, talde esperimentalaren baitan ere, Berba-lapiko proiektuan parte hartu duten ikasle zehatz batzuen garapena aztertu nahi da ikusteko zer-nolako aldea dagoen LH1en eta LH4n egin dituzten ekoizpenen artean. Hurrengo irudian ikerketaren bi ildo horiek azaltzen dira:



2. irudia. Ikerketa longitudinala

Hortaz, **lehenengo ildoan**, urtez urte, hautatutako ikasleen ekoizpenak jaso eta aztertu dira: aurten (irudian borobilduta, 3. urtea 2025) LH3n daudenak aztertu dira eta datorren urtean (4. urtea, 2026), ikasle horiek LH4ra pasatzen direnean, azken datu-bilketa egingo da, eta ikasle berberen ekoizpenak jaso eta aztertuko dira.

**Bigarren ildoari** dagozkion emaitzak hurrenez hurren 2025-2026 ikasturtean (goian esandako talde esperimentalaren eta kontrol taldearen arteko alderatzea) eta 2026-27 ikasturtean (LH1etik LH4ra bitarteko garapena) aztertuko dira. Horrela, hau ikusi nahi da: maila longitudinal batean, hau da, lau urtez metodologia inplementatu ondoren, ikasle horiek zein aurrerapen egin duten.

Horrenbestez, aurtengo **corpusa LH3ko talde esperimentalen ekoizpenek** osatu dute. Horrez gain, urtero bezala, **irakasleen balorazioak** ere jaso eta aztertu dira (kualitatiboki), materialetan eta metodologian egokitzapenak egiteko asmoz. Azkenik, aurten **ikasleen balorazioak** ere jaso eta aztertu dira (kuantitatiboki eta kualitatiboki) emaitzak osatzeko eta hiru iturrietan azaldutakoa gurutzatzeko; horren bidez, aztergaiari buruzko informazio osagarri eta xeheagoa eskaintzea ahalbidetu

Hurrengo irudian, corpusaren laburpena jaso da.

# Aurtengo Ikerketa Corpusa eta **Analisia**

Informazio iturrien gurutzaketa eta LH3ko talde esperimentalen ekoizpenen azterketa xehea.

ARDATZ NAGUSIA

## LH3ko Talde Esperimentala

Aurtengo Corpusa: Ikasleen Ekoizpenak



### Irakasleen Balorazioak

- Azterketa **kualitatiboa**.
- Materialen eta metodologiaren **egokitzapenak** egiteko asmoz.



### Ikasleen Balorazioak

- Azterketa **kuantitatiboa eta kualitatiboa**.
- Emaitzak osatzeko eta hiru iturriak **gurutzatzeko**.

INFORMAZIO GURUTZAKETA

Hiru iturriak gurutzatuz, aztergaiari buruzko informazio **osagarri eta xeheagoa** eskaintzea ahalbidetu da.

LH3 Corpusa

Irakasleen Balorazioa

Ikasleen Balorazioa

3. irudia. 2025eko corpusa

Jarraian, 2024-2025ko ekintza-ikerketari buruzko datu esanguratsu batzuk jaso dira.



# IKERKETAREN DISEINUA

Parte-hartzaileak, Metodologia eta Datuak

## 1 PARTE-HARTZAILEAK

**57**

IKASLE  
LH 3. maila

**7**

IRAKASLE  
Gela bakoitzeko bat

**3**

IKASTETXE  
EAEko lurralde ezberdinak

**Alkartu Ikastola**  
BARAKALDO

Ikasleak: **20**

Lerroak: **2 (A, B)**

**Lakuabizkarra HLHI**  
GASTEIZ

Ikasleak: **19**

Lerroak: **3 (A, B, C)**

**Ikasbide Ikastola**  
DONOSTIA

Ikasleak: **18**

Lerroak: **2 (A, B)**

## 2 METODOLOGIA: SOLAS ETA JOLAS

### MATERIALA

**A**

BERTSIO OROKORRA

**B**

MAILA EGOKITUA

### TENPORALIZAZIOA

IRAUPENA **8 Aste**  
*Prozesuaren implementazioa*

SAIOAK **32 Saio**  
20 minutu saio bakoitzeko  
**Astean 4-5 aldiz**

## 3 DATU-BILKETA

**57**

AURRETESTU

+

**57**

ONDOTESTU

**114**

TESTU GUZTIRA

*Analizatzeko jasotako corpusa*

4. irudia. 2025eko datu bilketa

## 1.1 IKERKETAREN FASEAK

Diseinatutako ekintza-ikerketan urtero ziklo berbera errepikatzen da, ondorengo irudiak erakusten duen bezala:



5. irudia. 2025eko datu bilketa

Datozen lerroetan horietako bakoitza azalduko da, gertakarien ordena kronologikoa jarraituz.

### 1.1.1 Ikastetxearekin harremana (2024ko URRIA)

Ikasturtearen hasierarekin batera, lehenengo urratsa ikastetxeekin harremanetan jartzea izan zen, eta proiektuaren aurkezpena egitea. Hiru ikastetxe horietako zuzendaritzakoekin bilera bana antolatu zen eta klaustroan ere proiektua aurkeztu zen. Bestalde, ikerketan parte hartu zuten irakasleekin ikastetxeka bilera bana egin zen abenduan, ikerketaren nondik norakoak azaldu eta irakaslearen rola gehiago zehazteko.

### 1.1.2 Irakasleen prestakuntza (2024ko URRIA-ABENDUA)

Fase honetan, Berritzeguneko aholkularien bitartez, LH3ko irakasleei berariazko prestakuntza eskaini zitzaion. Ikastetxe bakoitzean, aholkulariek hiruna prestakuntza saio eman zituzten eta hurbileko jarraipen saio bana egin zuten.

### 1.1.3 Metodologiaren inplementazioa (2025eko URTARRILA-MARTXOA)

Irakasleak formatu eta gero, LH3ko geletan inplementatu zen metodologia. Irakasleek ikasitakoa gelara eraman eta metodologia 8 astez inplementatu zuten.

#### **1.1.4 Datu bilketa (2025eko URTARRILA - MARTXOA)**

Segidan, datu bilketarako dispositibo metodologikoa diseinatu eta grabaketarako tresnak eta protokoloa prestatu ziren. Irakasleen eta ikasleen baimenak jaso eta irakasleei beraien eginkizuna zehaztu zitzairen. Corpusaren bilketa honela antolatu zen:

- Urtarrilean, LH3ko ikasleen aurrettestuen grabaketak egin ziren.
- Martxoan, LH3ko ikasleen ondotestuen grabaketak egin ziren; horrez gain, LH3ko ikasleen balorazioak, inkesta moduko baten bidez eta irakasleak bideratutako talde elkarrizketaren bidez, eta bestetik, irakasleen balorazioak, Berba-lapiko taldeak bideratutako elkarrizketa baten bidez.

Ikastetxeetan ikasturteari itxiera emateko asmoz, apirila eta ekaina bitartean zuzendaritzarekin ere bilera egin zen.

#### **1.1.5 Datu kudeaketa (2025eko OTSAILA - UZTAILA)**

Fase honen helburua jasotako corpusa azterketarako prestatzea izan zen. Hortaz, bideoak eta audioak editatu eta antolatu egin ziren. Horiekin batera, ikasleen kodifikazioa eta ekoizpenen transkripzioak ere egin ziren.

#### **1.1.6 Analisia (2025eko APIRILA - URRIA)**

Ikerketaren helburu nagusia ikasleen ahozko gaitasunean egindako jauzia aztertzea izan zen. Azterketa horretarako erreminta diseinatu zen; ondoren, datuak analizatu eta, azkenik, emaitzen irakurketa osatu zen. Horrez gain, ikasleen balorazioak ere aztertu ziren, datu horiek irakasleen pertzepzio edo hautemateekin osatzeko.

#### **1.1.7 Emaitzak (2025eko AZAROA - ABENDUA)**

Fase honetan, emaitzen laburpena egin eta ikerketaren ondorioak atera dira. Ondorio horiek, mezu orokorretan bildu dira ikastetxeei egindakoaren berri eman eta ikerketaren emaitzak azaltzeko.

#### **1.1.8 Materialetan egokitzapenak (2025eko IRAILA - URRIA)**

Analitik ateratako ondorioekin materialetan egokitzapenak egin dira. Irakasleen balorazioetan jasotako feedbacka ere baliatu da materialak egokitzeko. Egokitutako materialak aholkulariei helarazi zaizkie beraien aholkularitza-saioetan txertatu ahal izateko.

#### **1.1.9 Txostena eta ikastetxeei feedbacka (2025eko ABENDUA)**

Bukatzeko, ikerketaren emaitzak azken txosten honetan jaso dira eta ikastetxeekin partekatu dira. Kasu honetan, hurrengo ikasturteko proiektuaren ildoak ikastetxeetan aurkezteko erabili ohi den saio bera aprobetxatu da ikastetxeei 2024-2025eko ikerketaren emaitzen berri emateko.

## 1.2 AZTERKETA: IKASLEEN AZTARNAK

Aipatu bezala, aurten 3.0 Ikerketaren helburu nagusia ikasleen garapen aztarnak aztertzea da, hau da, ikasleen ahozko ekoizpenetan, gaitasunari dagokionez zein aurrerapen-aztarna antzeman izan den ikertzea, bereziki hizkuntza errutinetan langai izan dituzten alderdietan.

LH3ko ikasleen kasuan, ahozko komunikaziorako konpetentzia garatzeko urratsak egin ditzaten, *Solas eta Jolas* hizkuntza-errutina gauzatu da gelan: irakasle-ikasleek goizero tarte bat hartu eta jolasak partekatu dituzte elkarrekin. Amaierako ekoizpenean (ondotestuan) ikasleek jolas bat azaldu diete ikaskideei.

Zehazki, **Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumeko (77/2023)** honako konpetentzia espezifikoak izan dira langai:

Hizkuntza errutinen bidez garatu nahi den Funtsezko konpetentzia honako hau da: **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.**

Hizkuntza-errutinetan bi helburu nagusi hauek erdiestera bideratuta daude:

- Gaitasun sortzailea bultzatzea, oinarrizko hizkuntza formak ezagutzuz erabilera ekoizteko.
- Hizkuntzarekin gozatzea eta euskararekiko atxikimendua handitzea, kultura baliatuz hitzun aktiboak sortzeko.

### **Deskriptoreak (HKK1):**

- Gertakariak, pentsamenduak eta sentimenduak euskaraz ahoz adierazten ditu (adieraztea).
- Elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du/ parte hartzea lankidetzaz eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko eta baita lotura pertsonalak eraikitzeko ere.

Funtsezko konpetentzia hori lortzeko bereziki, curriculumeko 2. eta 3. konpetentzia espezifikoak garatzeko testuinguruak sortu dira hizkuntza errutinetan eta zehatzago esateko honako **konpetentzia espezifikoak** garatu dira:

- Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak plangintza lagundu bidez sortzea, diskurtsoaren erregistroa komunikazio-egoerara egokituz eta hitzezkoak ez diren oinarrizko baliabideak erabiliz (3. konpetentzia espezifikoari dagokio), eta hizkuntza errutinetan konpetentzia honek honela hartzen du lur: hitzaren bidez, ideiak, sentimenduak sormenez adierazi eta komunikatzeko, gaitasun sortzailea bultzatzea, oinarrizko hizkuntza formak ezagutzuz erabilera errealean ekoizteko.
- Bigarren konpetentzian, curriculumean dioten honekin lotuko genuke: euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, ahozko arte eta kultura-adierazpenaren bidez. Konpetentzia espezifiko horrek hizkuntza-errutinetan honela hartuko du lur: hizkuntzarekin gozatzea eta

euskararekiko atxikimendua handitzea, kultura baliatuz hitzun aktiboak sortzeko.

- Hirugarren konpetentzian, ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzua ulertzea, ideia nagusiak, mezu esplizituak eta mezu inpliziturik errazenak ezagutuz eta edukiaren eta hitzekoak ez diren elementurik oinarrikoenen balorazio kritikoan laguntzarekin aurrera eginez. Honek hizkuntza errutinetan honela hartuko du lur: ahozko testuak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatzeko eta alderdi formalak eta oinarriko edukiak landuz komunikazio premiei erantzuteko.

Horretarako, **lantzen diren hizkuntza baliabideak** (Oinarriko jakintzak) honako hauek dira:

- Instrukzio testuen egitura orokorra ezagutu. Jolasen azalpenen makro eta mikro egitura barneratu.
- Antolatzaile sinpleak ikasi eta ahoz erabili: *Lehenengo, gero, ondoren, hori egin ostean, bukatu eta gero, hori egin eta gero, bukatzeko.*
- "behar izan" aditza erabilera ezberdinetan ezagutu: *Material hau behar da / Hau egin behar da.*
- Aditz denborak modu jabetuan erabili (1. plurala + 3. singularra bereziki):
  - Orainaldiko aspektua + "behar" egitura: *ezkutatu behar da*
  - Etorkizuneko aspektua: *ezkutatuko da*
- Jolas munduarekin lotutako lexiko berria ikasi eta erabili (materiala, aditzak...): *zapia, soka, baloia, ezkutatu, harrapatu, korrika egin, asmatu...*
- Ergatiboari erreparatzen hasi: jolastuz ergatiboa baliatu.
- Baliabide ez berbalak: hitzaren eskuaren eta espazioaren arteko artikulazioa.

Atal honetan, ikergai izan diren adierazleak (1.2.1), azterketarako errubrika eta adierazle kuantitatiboak (1.2.3) eta laginaren zehaztapenak (1.2.4) jaso dira.

### 1.2.1 Azterketarako adierazleak

Ikerketaren ikergai honetarako, **ikasleen ahozko gaitasunean izandako garapen aztarnak aztertzeko**, errutinetan langai izan dituzten alderdiak eta ahozkoa ebaluatzeko esanguratsuak diren zenbait errubrika aintzat hartu ditugu (Dolz, 2004; ISEI-IVEI, 2013; Vila et al, 2021)<sup>1</sup>. Hiru adierazle nagusitan jarri dugu arreta:

<sup>1</sup> Dolz, J.(2004). Produire une explication en chimie à l'école primaire. Le jus de chourouge: un indicateur coloré. In: K. Canvat, M. Monballin & M. van der Brempt (Ed.) Convergences aventureuses. Littérature, langue, didactique. Pour Georges Legros (pp.89-109). Namur: Presses universitaires de Namur. ISEI-IVEI, Berritzegune Nagusia eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2013). Hizkuntza komunikazioa: Euskara. LH 4. maila. Ebaluazio-diagnostikoa 2012.

**ahozko jarioan, langai izan den generoaren hezurduran (planifikazio mailan) eta hizkuntza formetan.** Adierazle horiek bereziki errutinekin erdietsi nahi izan diren helburuetatik eta errutinetan landutakotik sortu ziren eta, beraz, guztiak izan ziren kontuan errutinen diseinuan.

Alderdi horiek ebaluatzeko, Condemarín eta Medinaren arabera (2000)<sup>2</sup>, informazio erabilgarria eskaintzen du **errubrikak**; ikaskuntzan izandako garapen maila ebaluatzeko ekarpena egiten du, bereziki dimentsioak, irizpideak eta mailak eskaintzen dituen bitartekoa delako (Sotomayor, Ávila eta Jéldrezek 2015:12)<sup>3</sup>.

Errubrikak bi motatakoak izan ohi dira: holistikoak eta analitikoak. Lehenak, begirada globala eskaintzen du eta analitikoak, berriz, hizkuntza jarduera hori dimentsio (linguistiko, testual, diskurtsibo...) edo gaitasunetan eta irizpidetan bereizten du. Azken horri Sotomayor, Ávila eta Jéldrezek (2015) honako abantailak ikusten dizkiote:

- Ikasleek dimentsio bakoitzeko (eta gure kasuan dimentsio hori irizpideen arabera desglosatuta egongo da) duten maila ezagutzeak aukera eskaintzen du dimentsio bakoitza berariaz landu, irakatsi, praktikan jarri eta ebaluatzeko: "Al dar a conocer por separado el desempeño esperado en cada dimensión, las rúbricas analíticas permiten enseñar, practicar y evaluar cada una de las dimensiones de la producción" (2015:12) .
- Halaber, ekoizpenetan arreta guneak zehazten laguntzen du, baita konplexutasunaz jabetzen ere.
- Garapen horretan indarguneak eta hobetzekoak identifikatzen ere laguntzen du.

Kasu honetan ere bi alderdi uztartu dira ikasleen garapenaren aztarnak ebaluatzeko: batetik, ikasleen garapenaren argazki orokor edo global bat ematen saiatzea eta, bestetik, ikasle horren ahozko ekoizpenean gaitasun edo dimentsio bakoitzeko egin duen garapena gehiago zehazten saiatzea.

Eraiki den errubrika ez da hutsetik sortu; hainbat adituren ekarriak<sup>4</sup> eta ahozkoa lantzeko zenbait errubrika aztertu eta hizkuntza errutinen metodologian maila bakoitzeko lanerako gaiak izan diren adierazleak modu mailakatuan txertatuz eraiki

---

Vila, F. X. i al. (2021). "Una anàlisi comparativa del domini del català i del castellà orals a la fi de l'educació secundària obligatòria a Catalunya". *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language of Law*, 75, 85-106. <https://doi.org/10.2436/rld.i75.2021.3592>.

<sup>2</sup> Condemarín, M. y Medina, A. (2000). *La evaluación auténtica de los aprendizajes*. Santiago: Andrés Bello

<sup>3</sup> Sotomayor, C., Ávila, N. eta Jéldrez, E. (2015). *Rúbricas y otras herramientas para desarrollar la escritura en el aula, Chile*. Chile: Santillana del Pacífico S.A. de Ediciones.

<sup>4</sup> Carmen Sotomayor Natalia Ávila Elvira Jéldrez (2015). *Rúbricas y otras herramientas para desarrollar la escritura en el aula, Chile*. Chile: Santillana del Pacífico S.A. de Ediciones.

Vila, F. X. i al. (2021). "Una anàlisi comparativa del domini del català i del castellà orals a la fi de l'educació secundària obligatòria a Catalunya". *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language of Law*, 75, 85-106. <https://doi.org/10.2436/rld.i75.2021.3592>.

ISEI-IVEI (2021). *Ebaluazio-diagnostikoaren markoa (Lehen Hezkuntzako 4. maila): hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia* (euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza)

ISEI-IVEI. "Mintzamenerako ebaluazioa": LH4.maila

Garro, E.; Pérez, K.; Azpeitia, A. eta Irizar, A. (2021). "Jendaurreko ahozko aurkezpen lanketa unibertsitatean Sekuentzia didaktiko eta praktika gogoetatsuen bidez", *Ikastaria*, 18. zenbakia, 195-219 orr.

da. Funtsezkoa da errubrika nola antolatuta edo osatuta dagoen gehiago zehaztea, ikasleen emaitzak ere horren arabera aztertuak izan baitira.

Ahozkotasanaren lanketari begira, eta hizkuntza errutinetan lanerako gaiak izan diren alderdiak aintzat hartuz, sortu den errubrikan bi dimentsio nagusi bereizi dira: dimentsio linguistikoa eta dimentsio diskurtsibo-erretorikoa. Hainbat irizpide daude dimentsio bakoitzaren barruan: alde batetik, dimentsioa bera desglosatzen dutenak eta, bestetik, azterketari begira eta hizkuntza errutinetan lanerako gai izan dutena aintzat hartuz esanguratsuak direnak.

#### a) Dimentsio linguistiko-testualean:

- **Testuaren egitura eta testuaren kohesioa eta koherentzia:** helburu komunikatiboari erantzuteko, ikasleen ahozko ekoizpena zentzu-unitate gisa (modu autonomoan eta koherentean) nola antolatzen den aztertu da. Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da. Beraz, eskatutako testuaren testu-egitura errespetatzen den begiratu da irizpide honekin: kontaketa, narrazioa, deskribapena; gure kasuan, jolasen azalpena non, norekin eta nola jolasten den arauak eta urratsak azalduz (LH3). Horrekin batera, informazioaren arteko harremanak gauzatzeko hizkuntza-mekanismoak (kohesio-baliabideak) erabiltzen diren ere aztertu da.
- **Morfologia:** honen barnean **deklinabidea** eta **aditza** nabarmendu dira.
- **Sintaxia:** ahozko diskurtsoan perpaus bakunez gain, koordinatuak nahiz menpekoak ekoizteko gai den; eta
- **Lexikoa** (lanketak barne hartu duena eta hartu ez duena): murrizta ala askotarikoa den.

Funtsean, arau morfosintaktikoen erabilera zuzena den ala ez zehaztu da, baita lexiko egokiaren erabilera zuzena eta askotarikoa den ere.

#### b) Dimentsio diskurtsibo-erretorikoan:

- **Komunikazio egoerara egokitzea:** Eskatutako egoera komunikatiboari eta eginkizunaren helburuari egokitzen ote zaion, zailtasunak izan ote dituen eta ekoizpenak helburua ongi betetzen ote duen aztertzen da.
- **Jarioa:** Jario kontzeptuak ere adiera ezberdinak izan ohi ditu. Maiz, ahozko diskurtsoak etenik gabe aurrera egiten duten ala ez ikusteko erabiltzen da. Hori albo batera utzi gabe, jarioz aritzeari esanahi sakonagoa eta aldi berean zabalagoa eman diogu: ahozko diskurtso-estrategiak erabiltzen ote dituzten aztertzeko ere baliatu dugu. Hau da, hartzaileak informazioa ongi ulertu dezan, diskurtsoa egituratzeko, zehazteko, azaltzeko, zuzentzeko, birformulatzeko estrategiarik erabiltzen ote duen eta, erabiltzekotan, zein estrategia nagusitzen zen aztertu dugu.

Bestalde, aurrez aipaturiko adierazleez gain, aurten **adierazle kuantitatiboak** aztertu ditugu ikasleen diskurtsoetan.



Aurreko atalean aipatu bezala (1.2.1) aurten adierazle kuantitatiboak ere gehitu dira. Jarraian jaso dira **adierazle kuantitatiboak** aztertzeko erabilitako parametroak:

- **Konplexutasun sintaktikoa:**
  - Diskurtsoaren luzera (hitz kopurua)
  - Esaldi bakun eta konposatuak
  - Esaldi moten kopurua
- **Konplexutasun lexikoa:**
  - Izen-kopurua
  - Izenondo-kopurua
  - Aditz-ekintzak
  - Gaztelerazko hitzak
- **Diskurtso estrategiak:**
  - Jarioan: eten eta makul-kopurua
  - Zehaztapen, birformulazio-kopurua...
- **Akatsen kopurua**

### 1.2.3 Corpusa

Urtero bezala, honako hauek izan dira LH3ko talde esperimentalaren corpusa zehazteko irizpideak:

- **Testuinguru erdaldunak**, hau da, 1. gunea eta 2. gunean kokatutakoak<sup>5</sup>, aukeratu dira.
- **Maila bereko bi edo hiru lerro** hartu dira kontuan.
- Ikasleak aukeratzekoan, **D ereduan eskolatutako ikasleak, Haur Hezkuntzatik ikastetxe berean hasitakoak eta euskararekiko gaitasun edo jarreraren muturreko egoeran ez dauden ikasleak** hautatu dira. Ez dira aintzat hartu bereziki ondo moldatzen direnak edo etxetik euskara dakartenak ezta ikasle-etorri berriak edo hizkuntzarekin aparteko zailtasunak dituztenak ere.

Hona hemen aurtengo LH3n egindako ikerketaren datuak:

---

<sup>5</sup> 2021eko inkesta soziolinguistikoaren arabera, gune horietako datu soziolinguistikoak hauek dira: 1. gunean % 32,3 da euskalduna eta 2. gunean % 23,1.

- Ikerketa laginari buruz, LH3 mailan, 2024-2025 ikasturtean, **hiru ikastetxetako** datuak jaso dira; guztira **57 ikasleren 114 testu** (A ikastetxeko 40 testu [20 aurretestu, 20 ondotestu], B ikastetxeko 38 testu [19 aurretestu, 19 ondotestu] eta C ikastetxeko 36 testu [18 aurretestu, 18 ondotestu]).

Horietatik, **42 ikasleren ekoizpenak** aztertu dira 3 eskolatan, hau da, gela bakoitzeko, 7 ikasle A eta C ikastetxeen kasuan (LH3 A eta LH3 B), eta hiru gela B ikastetxean (LH3 A gelan 7 ikasle, LH3 B gelan 3 ikasle eta LH3 C gelan 4 ikasle). Hortaz, guztira, **84 testu** aztertu dira (42 aurretestu eta 42 ondotestu).

### 1.3 EMAITZAK

Jarraian hiru ikastetxeetako LH3ko ikasleen ahozko ekoizpenak aztertuko dira eta aurretestuetatik ondotestuetara egindako jauziaren emaitzak azalerratu dira.

#### 1.3.1 A ikastetxea

Ikastola honetan, guztira **14 ikasleren ahozko ekoizpenak aztertu dira**, hau da, gela bakoitzean zazpina ikaslerenak (LH3An 7 ikasle eta LH3Bn beste 7 ikasle). Jarraian, azterketa horretako emaitza nagusiak jaso ditugu, bai kualitatiboki eta baita kuantitatiboki ere:

- Emaitza orokor gisara, aztergai izan diren ikasleen erdiak (zazpi ikaslek) puntu bateko jauzia egin dute (D > C hiru ikaslek eta C > B lau ikaslek). Gainerako zazpi ikasle maila berean geratu dira, hau da, aurretestuetatik ondotestuetara ez dute maila oso bateko jauzirik egin, nahiz eta adierazle batzuetan hobekuntzak ikusi diren. Zentzu horretan, aztertu diren ikasleetatik zazpi ikaslek C-tik C+ -erako jauzia egin dute, adierazle batzuetan hobekuntzak ikusi direlako.
- Hobekuntzaren emaitzak zehatzago ikusteko, ikasleek jauzirik nabarmenena deklinabidean eta lexikoan egin dutela erakutsi dute datuek, eta jauzirik txikiena, berriz, aditzean (bai forman eta bai erabileran) zein diskurtsoa eraikitzekeko estrategietan ikusi da.

Hurrengo tauletan ateratako emaitza horiek datuetan laburbildu dira:

<b>A IKASTETXEKO IKASLEEK EGINDAKO JAUZIA</b>		
<b>MAILA</b>	<b>ZENBAT PUNTUTAKO JAUZIA</b>	<b>IKASLE KOPURUA</b>
C > C+	0	<b>7</b>
D > C	1	3
C > B	1	4
GUZTIRA		14

<b>JAUZIA ADIERAZLEKA AZTERTUTA</b>		
<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>JAUZIA</b>	<b>GUZTIRA EMANDAKO JAUZI KOPURUA</b>
Testuaren egitura, kohesioa eta koherentzia	8	<b>61</b>
Morfologia: Deklinabidea	<b>11</b>	
Morfologia: Aditza	4	
Sintaxia	8	
Lexikoa	<b>9</b>	
Komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzea	8	
Jariora: Isiltasuna, etenak, makuluak, zalantzak	8	
Jariora: Diskurtsoa eraikitzeko estrategiak	5	

Jarraian ikasle baten ekoizpena bere osotasunean hartuta egindako azterketa jaso da adibide gisara, adierazle adierazle aurrettestuetatik ondotestuetara dagoen aldea aztertzeko:

<b>1: D &gt; C</b>	
<b>Puntu bateko jauzia egin du, gutxienez, adierazle guztietan.</b>	
<b>AURRETESTUA</b>	<b>ONDOTESTUA</b>
<p>IRK: orduan/ orduan/ hasiko gara/ adibidez IK-ekin/ bai?/ IK zu a ver kontatu</p> <p><b>IK: poli eta kakoak</b></p> <p>IK2: pa tío!</p> <p>IRK: poli eta kakoak jolasa/ bale gero aukeratuko duzue/ e: nahi baduzue aukeratu joko bera/ eta azalduko duzue beste modu baten/ bale?/ a ver IK</p> <p><b>IK: e: ia-ia pilla-pilla da/ baina ez da berdina</b></p> <p>IRK: zergatik?</p> <p><b>IK: ze: bada-badaude ez badago bat e: ez dago bat eta besteak</b></p>	<p><b>IK: tokatu zaidan jokua poli eta kakoak dira/ e: [altxatu eta jokoaren izena daukan papertxoak itzultzen dio irakasleari]</b></p> <p>IRK: oso ondo/ IK hasi kontaktzen/ aber</p> <p><b>IK: e:m ni:k jolasten... nuen e: (2') herrian nire lagunekin gauean (2') e lehenengoz bi taldeak egin dira-egingo dira zotza egiten/</b></p> <p>IRK: SSS atzera [tonu baxuan]</p> <p><b>IK: bat poliziak eta bestea kakoak/ poliziak kontaktzen dute... e: zenbatzen dute 20-30-40 m:/ e:ta e: kakoak beha... ezk-ezkondutu?</b></p>

<p> <b>eskondutzero/ daude beste batzuk/ eta: horiek e: deitzen dira poliziak/ eta: beste batzuek e kakoak</b>  <i>IRK: eta zertan datza/ jokua?</i>  <b>IK: e: harrapatzen duzu bat [IRKk zerbaiz galdetzen dio azaltzen dagoen eran eta ez da entzuten] eta/ e:m kartzelara joaten da/ eta: harrapatzen duzuen guztiak/ e: aldatzen duzue/ poliak kakoak eta kakoak poliziak</b>  <i>IRK: izango dira/ bai?/ orduan hor amaitzen da jokoa/ ezta?</i>  <b>IK: bai</b>  <i>IRK: txalo bero bat</i> </p>	<p> <i>IRK: ezkutatu/ bai bai</i>  <b>IK: ezkutatu behar dira/ poliziak aurkitzen badute bat eta aurkitzen badute/ kartzelara joaten da/ e:ta besteek salbatu ahal dute bostekoa ematen/ e: poliziak e: guztiak harrapatzen badute/ trukutzen dira</b>  <i>IRK: eta bukatzen da...</i>  <b>IK: e poliziak kakoak dira eta kakoak poliziak</b> </p>
<p> <b>Gaitasun linguistiko-testualari dagokionez</b>, testu egitura eta koherentzia, garapen handia egon da aurretetik ondortestura. Aurretetik testuaren egitura ez du, oro har, errespetatu; hau da, gairatzerik ez du egin eta, zuzenean jolasa azaltzen hasi da baina azalpen hori egiteko muga handiak ditu eta jolasa ez du ulertarazten. Gainera, ekoizpena ez du modu beregain eta monologal batean eraiki, ez bada irakaslearen galderi erantzunez osatu duela informazioa. Ondortestuan, aldiz, kontaketa ongi egituratu du, kontaketa hezurdura bere osotasunean beteta modu beregain batean (irakaslearen galderen laguntzarik gabe ekoiziz) nahiz eta atal bakoitzeko informazioa erabat osatua ez izan.     </p> <p>       Deklinabidean hobekuntza agerikoa izan da; izan ere, aurretetik ez du inongo kasu markarik erabili eta ondortestuan, aldiz, NOR (<i>joku; kakoak; papertxo</i>), NON (<i>herrian; gauean</i>), NOREKIN (<i>nire lagunekin</i>) eta NORA (<i>kartzelara</i>) galderi erantzuteko kasu markak ageri dira.     </p> <p>       Aditzari dagokionez, aurretetik bere osotasunean orainaldian gauzatu du eta ez da orainaren eta lehen aldiaren arteko nahasketarik ikusi. Ondortestuan, oraina eta lehen aldia ongi bereizi ditu; ia ekoizpen osoa lehen aldira mugatu badu ere, hasieran orainaldia ere ongi gauzatu du.     </p> <p>       Aditzaren aspektuari dagokionez, aurretetik bada ia modu sistematikoan egiten duen akats bat: etorkizuneko (-ko) aspektuaren orde, aspektu burutugabea erabiltzea (-ten/tzen), gaztelaniazko kalko gisara (<i>deitzen dira; harrapatzen duzu; joaten dira...</i>). Ondortestuan berriz, ahalegina ikusi da etorkizuneko aspektua erabiltzeko (<i>lehenengoz bi taldeak egin dira-egingo dira zotza egiten</i>) nahiz eta oraindik aspektu mailako nahasteak egon badauden (<i>kontatzen dute... e: zenbatzen dute</i>). Ondortestuan gainera, jolasa azaltzerakoan jolaseko arauak "behar izan" aditzarekin ere gauzatu ditu (<i>ezkutatu behar dira</i>) eta baita baldintza baliatuz ere (<i>ezkutatu behar dira; poliziak aurkitzen badute bat eta aurkitzen badute; kartzelara joaten da</i>). Horregatik guztiatik ekoizitako diskurtsoa aberatsagoa da ondortestuan.     </p> <p>       Sintaxian ere aldea egon da; aurretetik perpaus bakunak ekoiztetik, ondortestuan perpaus koordinatuak eta menpeko perpausak erabiltzera egin du urratsa. Aurretetik bi perpaus bakun ekoizti ditu baina ondortestuan honako     </p>	

perpau motak ekoitzi ditu: 3 perpau bakun, koordinaziozko (*etarekin*) 5 perpau, 3 baldintzako perpau eta lokailu baten bidez elkartutako perpaua (*lehenengoz bi taldeak egin dira-egingo dira zotza egiten*).

Hiztegiari dagokionez ere jauzia ikusi da. Aurrettestuan, hiztegia mugatua eta murrizta baliatu du, eta batzuetan gaztelaniara jo du (*eskondutzeroa, poli, pilla pilla*). Ondotestuan erabilitako hiztegia, berriz, zuzena da. Oraindik ere gaztelaniazko hitzen bat erabili du ekoizpena osatu ahal izateko, baina berariaz landutako hiztegiaren zein landu gabekoaren arrastoak daude. Horiekin batera, aditz ekintza askotarikoagoak (*jolastu, aurkitu, harrapatu, trukatu...*) erabili ditu, eta hori funtsezkoa da jolasa zein ekintzekin gauzatzen den aditzera emateko eta azalpena gehiago zehazteko.

**Dimentsio diskurtsibo-erretorikoari erreparatzeak erakusten du** egoera komunikatiboari egokitzeko zailtasunak izan dituela aurrettestuan eta, ondorioz, mezua ez dela ulertu. Ondotestuan, berriz, ikasleak emandako jolasaren azalpenak ulertu dira eta, beraz, eskatutako egoera komunikatiboari hobeto erantzun dio.

**Horrez gain, dimentsio diskurtsibo-erretorikoari dagokionez,** bereziki bi alderi begiratu zaie jariora aztertzeko: makulu eta etenei batetik eta diskurtsoaren kalitate eta estrategiei bestetik. Horiei dagokionez ere hobekuntza nabari da; izan ere, nahiz eta ondotestuan aurrettestuan baino eten gehiago egiten duen (*e bidezko isiluneak, esaterako*), isilune horien ondoren irakaslearen laguntzarik gabe ekoizteko gai da bere diskurtso monologala. Aurrettestuan, aldiz, eten bakoitzaren atzetik irakaslearen laguntza dator.

Diskurtsoari dagokionez, birformulazio estrategiarik baliatu ez badu ere, autozuzenketaren bat edo beste egin du azalpenak zehazte aldera (*kontatzen dute... zenbatzen dute*) eta hori hizkuntzaren erabilera jabetuagoaren adierazle da. Gainera, aurrettestuan ez bezala, ondotestuak konplexutasun handiagoa du eta diskurtsoa luzeagoa da. Aurrettestuan egoera komunikatiboari egokitzeko zailtasunak izan ditu eta, ondorioz, mezua ez da ulertu. Ondotestuari dagokionez, ulertu egin dira ikasleak emandako jolasaren azalpenak.

### Gainerako ikasleen emaitzak:

#### **IK2: C > B**

Jauzia adierazle guztietan egin du, morfologian (deklinabidea) izan ezik: deklinabidea C mailan mantendu da.

#### **IK3: D > C**

Jauzia honako adierazleetan egin du: sintaxian eta lexikoan. Gainontzeko adierazleetan maila berean geratu da (C eta D).

**IK4: C > C+**

Jauzia honako adierazleetan egin du: lexikoan eta jarioan (B maila eskuratu du). Gainontzeko adierazleetan maila berean geratu da.

**IK5: C > C+**

Jauzia honako adierazleetan egin du: morfologian (deklinabidean) eta komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzean (B maila eskuratu du). Gainontzeko adierazleetan maila berean geratu da.

**IK6: C > B**

Jauzia ia adierazle guztietan egin du testuaren egitura eta lexikoan izan ezik; adierazle horietan C mailan mantendu da.

**IK7: C > B**

Jauzia adierazle guztietan egin du morfologian (aditza) eta komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzean izan ezik; adierazle horietan C mailan mantendu da.

**IK8: C > C+**

Jauzia honako adierazleetan egin du: sintaxian eta lexikoan. Gainontzeko adierazleetan maila berean geratu da.

**IK9: C > B**

Jauzia adierazle guztietan egin du morfologian (deklinabidean) eta lexikoan izan ezik; adierazle horietan C mailan mantendu da.

**IK10: D > C**

Jauzia adierazle guztietan egin du sintaxian izan ezik; sintaxian D mailan mantendu da.

**IK11: C > C+**

Jauzia honako adierazleetan egin du: morfologian (aditza) eta komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzean. Gainontzeko adierazleetan maila berean geratu da.

**IK12: C > C+**

Jauzia honako adierazleetan egin du: lexikoan eta komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzean. Gainontzeko adierazleetan maila berean geratu da.

**IK13: C > C+**

Jauzia honako adierazleetan egin du: morfologian (deklinabidea) eta jarioan. Gainontzeko adierazleetan maila berean geratu da.

**IK14: C > C+**

Jauzia adierazle guztietan egin du, morfologian (aditza) eta jarioan izan ezik; adierazle horietan D mailan mantendu da.

**Adierazle kuantitatiboak** aintzat hartuta, honako alderdiak dira kontuan hartu beharrekoak:

- Diskurtsoaren luzera

Ikaslea	Aurretestua	Ondotestua	Hazkunde-faktorea <sup>6</sup>
IK1	42	70	1,67
IK2	54	60	1,11
IK3	30	52	1,73
IK4	50	49	0,98
IK5	67	78	1,16
IK6	38	59	1,55
IK7	62	100	1,61
IK8	51	48	0,94
IK9	49	64	1,31
IK10	22	32	1,45
IK11	75	72	0,96
IK12	93	80	0,86
IK13	76	68	0,89
IK14	40	48	1,20

<sup>6</sup> Hazkunde-faktoreak amaierako balioaren eta hasierakoaren arteko arrazoia adierazten du. Kalkulatzeko, amaierako balioa hasierako balioarekin zatitzen da, eta emaitza horrela interpretatzen da: 1 baino handiagoa = hazkundera egon da; 1 = ez da aldaketarik egon.

**Ikastetxe honetako ikasleen ondotestuko hitz-kopurua aurretestuko hitz-kopuruarekin alderatuz gero, ugaritu** egin da; hazkunde-faktorearen batez bestekoa kontuan hartuz, **1,24 gehiago ekoiztu** dute ikasleek. Zehatz esateko, 9 ikasleren diskurtsoaren luzera aurretestutik ondotestura ugaritu egin da (adibidez, 42 hitz ekoiztetik 70 hitz ekoiztera pasa da ikasle bat, edo 62 hitzetik 100 hitzetara beste ikasle bat). Hala eta guztiz ere, 5 ikaslek hitz kopuru txikiagoa ekoiztu du ondotestuan. Dena dela, luzera txikitu denean ere ez da alde esanguratsua izan. Esaterako, aurretestuan 76 izatetik ondotestuan 68 izatera edo 50 hitzetik 49 hitzetara pasata.

- Zuzentasun mailari dagokion akats kopurua aurretestutik ondotestura (deklinabidean)

Ikaslea	Aurretestua	Ondotestua	Hazkunde-faktorea
IK1	0	1	2
IK2	1	0	0
IK3	2	2	1
IK4	2	1	0,5
IK5	2	0	0
IK6	2	2	1
IK7	1	0	0
IK8	0	0	1
IK9	1	3	3
IK10	0	0	1
IK11	1	0	0
IK12	1	0	0
IK13	2	1	0,5
IK14	1	0	0

Zuzentasunari dagokionez, akatsen kopurua aurretestutik ondotestura jaitsi egin da 8 ikasleren kasuan (adibidez, ikasle batek aurretestuan 2 akats egitetik ondotestuan akatsik ez egitera igaro da). Bestetik, 4 ikasleren emaitzak aurretestuan eta

ondotestuan berdinak izan dira (esaterako, bi ikaslek ez dute ez aurretestuan ezta ondotestuan ere akatsik egin). Azkenik, 2 ikaslek, ordea, ondotestuan aurretestuan baino akats gehiago egin dute. Beraz, ondorioztatu daiteke **ikasleen erdiak baino gehiagok ondotestuan aurretestuan baino akats gutxiago egin** dituela.

- Sintaxia (perpaus kopurua)

Ikaslea	Aurretestua	Ondotestua	Hazkunde-faktorea
IK1	2	17	8,50
IK2	9	14	1,56
IK3	3	9	3,00
IK4	8	8	1,00
IK5	8	9	1,13
IK6	5	8	1,60
IK7	8	9	1,13
IK8	10	12	1,20
IK9	9	12	1,33
IK10	3	5	1,67
IK11	11	10	0,91
IK12	10	10	1,00
IK13	10	10	1,00
IK14	7	6	0,86

Perpaus kopuruari dagokionez, eta **hazkunde-faktorea** aintzat hartuz gero, **1,85 hazi da batez beste**. Hau da, 9 ikaslek ondotestuan aurretestuan baino perpaus gehiago ekoitzi dituzte (adibidez, ikasle bat 2 perpaus ekoiztetik 17 perpaus ekoiztera igaro da). 3 ikaslek perpaus kopuru bera mantendu dute bai aurretestuan eta baita ondotestuan ere. Eta, amaitzeko, 2 ikaslek ondotestuan aurretestuan baino perpaus gutxiago ekoitzi dituzte, nahiz eta bien arteko aldea txikia izan (esaterako, ikasle batek aurretestuan 11 perpaus ekoitzi ditu eta ondotestuan, aldiz, 10). Beraz, **aurretestutik ondotestura hobekuntza nabari da perpaus kopuruari dagokionez**.

## A IKASTETXEKO BALORAZIOAREN AZTERKETA: IRAKASLEENA ETA IKASLEENA

Balorazioaren azterketan irakasleen eta ikasleen ekarpenak jaso eta sistematikoki aztertu dira, inplementatutako jardueren egokitasuna eta jasotako esperientzia balioesteko.

### a) Irakasleen balorazio (kualitatiboa)

Honako alderdiak nabarmendu dira Berba-lapiko proiektuaren inguruan irakasleen balorazioak aztertzean: prestakuntza, metodologia eta materiala, eta irakasleen ustez ikasleek egindako hobekuntza.

- **Prestakuntza**

Prestakuntza, oro har, ongi baloratu da; hala ere, irakasleek azpimarratu dute prestaketan materiala errepasatzeari denbora gehiago eskaini beharko litzaiokeela eta, horrekin batera, prestakuntzak izaera praktikoagoa izatea ere egoki ikusiko luketela.

- **Metodologia**

Metodologiari dagokionez, irakasleek egiturak eta edukiak ikasi eta barneratzeko metodologia lagungarri ikusten dute:

---

*Estrukturak eta edukiak ikasteko metodologia lagungarria da.*

---

Hala ere, errepikapenaren erabileraren inguruan ñabardura bat ere agertu da:

---

*Errepikapenekin asko ikasten dute baina badauka alderantzizko efektua ere, hau da, aspertu daitezke ere.*

---

Oztoporik nagusiena, irakasleen esanetan, denbora falta izan da, eta ikasturteko testuinguruak (grebak eta bestelako kontuak) prozesua aurrera eramatea zaildu duela adierazi dute:

---

*Denbora aldetik itota ibili gara eta askotan zaila izan da prozesua aurrera eramatea aurrean egon diren greba eta bestelako kontuekin.*

---

Ildo berean, urtearen izaera ere azpimarratu dute:

---

*Greba pila bat eta urte kaotikoa izan da.*

---

Gainera, gelako dinamika zehatz batzuek ere baldintzatu dutela adierazi dute

---

*Nire gelan ikasle batek kanpora atera beharra dauka, bestela ezinezkoa da saioa egitea.*

---

- **Materiala**

Materialari buruz askotariko iritziak egon dira. Orokorrean, materiala laguntza handikoa izan dela adierazi dute, baina bada materiala eguneratzea eskatzen duenik

ere. Horrez gain, irakasleek proposatu dute materiala ikasleei erakargarriagoak zaizkien gaiekin lotzea, eta teknologia berriak erabiliz aberastea.

- **Saioen gidaritza eta ahozketasunaren garrantzia**

Oro har, ahozketasuna lantzea garrantzitsua iruditzen zaie, eta ikasleak oso gustura aritu direla diote. Hala ere, balorazioetan agertu da irakasleren batek saioak hain gidatuak izatea oztopo edo traba moduan ulertzen duela.

- **Ikasleengan antzemandako hobekuntza (irakasleen ikuspegitik)**

Irakasleen arabera, ikasleak oso gustura aritu dira eta hasieran, ziurtasun falta erakutsi arren, saioak aurrera joan ahala geroz eta erosoago sentitu dira. Irakasleek hobekuntzak antzeman dituzte eta honakoa diote, bereziki abiadurari erreparatuta:

---

*Ikasle bera hasieran edota amaieran hartuz gero, hobekuntza nabari da.*

---

Bestalde, hiztegiarekin arazoak izan dituztela ere adierazi dute, eta materiala ikasleen mailara ondo egokitzen dela azpimarratu dute:

---

*Materiala beraien mailara ondo egokitzen dela azpimarratzen dute.*

---

Hiztegi-arazoei aurre egiteko, irakasleek normalean keinuekin lagundu ohi izan dute; hala ere, batzuetan, ikasleak bilatzen zuen hitza ere esaten dute ikasleak ekoizpenarekin jarraitzeko. Azken saioetan, gainera, ikasle batzuk irakaslearen rola hartzera iritsi dira, besteei zuzenketak eginez, eta horrek gogoeta metalinguistikoa egiteko aukera ere eskaini du.

## b) **Ikasleen balorazioa (kualitatiboa eta kuantitatiboa)**

Alde batetik, ikasleen balorazioa **kualitatiboki** aztertu da (ikasleekin gelan egindako elkarrizketen bidez).

### **LH3A**

- Berba-lapikorekin euskaraz hobeto egiten dutela diote eta akatsen balio eraikitzailea azpimarratu da:

---

*Konfunditzen bagara e, ikasten dugu.*

---

- Gehienek proiektuaren bukaeran errazago egin zaiela diote, amaieran gehiago dakitenez errazago hitz egiten dutelako; gutxi batzuek, berriz, ezezkoa adierazi dute arrazoitu gabe:

---

*Nahiago dut bukaeran, ze ikasi dut gehiago, pixka bat gehiago.*

*Diferentzia asko.*

*Ni bai. Ze azaldu dugu gauzak... eta hori: egin dugu jokoak... guztiok jolastu dugu... Eta euskara ya jokoarekin eta hau Berba-lapikorekin ya e hobetzen da.*

---

- Gustukoena galdetuta, askotariko erantzunak bildu dira: batzuek ordutegiaren dinamika aipatu dute; beste batzuek eskulanak (gauza berriak ikasi, etxean errepikatu, ondo pasatu); eta jolasak nabarmendu dituztenak ere badaude (jolasen inguruan gehiago ikasi eta azaltzeko gaitasuna hobetu):

---

*Ordutegiarena (...) gogoratzeko ze egingo dugu.*

*Eskulanena, ze ikasten dut eskulanak eta gero nire etxean ahal dut mejoratu.*

*Niri gustatu zait jolasak ze ikasi dut jolasak gehi esaldi berriak.*

---

- Zer ikasi duten galdetuta, euskaraz hobeto hitz egitea edo jolas berriak ezagutzea aipatu dute:

---

*Hobeto hitz egiten euskaraz.*

*Nik hasiera ziren joku berriak ikasi dut.*

*Nik Berba-lapiko hasieran ez nekien euskeraz, baina orain Berba-lapiko egiten dudanean ondo hitz egiten (...)*

---

- Hobetzeko gomendioetan, proposamen tematikoak (liburuak, kirolak, bitxikeriak...) eta metodologikoak (asmakizunak, marrazkiak, kontakizun asmatuak...) agertu dira:

---

*Liburu bat azaltzea.*

*Batek hartzen du txartel bat eta ematen du pista eta guk asmatu behar dugu zer gauza den.*

*Marrazki bat egin eta azaldu nola egiten duzu.*

*Gauza berriak ikasten baduzu esan hemen.*

*Hartu 5 txartel eta inbentatu istorio bat.*

---

### LH3B

- Ikasleek diote Berba-lapikoarekin ikasi dutela, eta amaieran hobeto moldatzen direla; euskara gehiago erabiltzen saiatuko direla ere adierazi dute:

---

*Nik orain gusturago sentitzen naiz euskeraz hitz egiten (...) ze lehen kostatzen zitzaidan gehiago eta orain ez.*

*Niri orain ze orain euskera hobeto ematen dit, ze lehen ez zait oso ondo ateratzen euskera.*

*Ni orain gusturago nago ze euskera hobeto dakit eta nire ama euskeraz hitz egiten dit eta nik erderaz erantzuten dut eta ba nire amarekin hobeto noa euskeraz, horregatik hemen hobeto.*

*Ni hobeto nago euskeraz hitz egiten orain ze gehiago dakit eta ahal dut hitz egin gehiago euskeraz eta nire ama pixka bat daki eta nire izeko dabil (...) eta ahal dut hitz.*

---

- Gustuko jolasen artean, hainbat aipatu dituzte: "Armiarma", "katea", "poliziak eta lapurrak".

Zer ikasi duten galdetuta, batzuek euskara hobeto eta gehiago hitz egitea aipatu dute; beste batzuek jendaurrean hitz egitea eta taldean komunikatzeko jarrerak (entzutea, txandak, errespetua...) nabarmendu dituzte:

---

*Entzuten beste pertsonak.*

*Euskara gehiago hitz egitea.*

*Errespetatzea txandak.*

*Hartu konfidantza besteengan.*

*Euskara hobetzea.*

*Taldean ez oihukatu eta horrela denok entzuten gara.*

---

**Balorazio kuantitatiboari dagokionez,** A ikastetxeko ikasleei Berba-Lapiko proiektuaren inguruan bost galdera egin zaizkie, eta LH3A eta LH3B gelatan 21na ikaslek erantzun dute galdera bakoitza (guztira 42 ikasle eta 210 erantzun). Oro har, balorazioa oso positiboa da: erantzunen **%93** (196/210) **positiboak** izan dira (1 eta 2 aukerak), eta %7 (14/210) izan dira 3 aukerakoak. Balorazio orokorra "oso ongi/ongi/gaizki" gisa irakurrita, emaitzek erakusten dute %61 (129/210) "oso ongi" dela (1 aukera), %32 (67/210) "ongi" (2 aukera) eta %7 (14/210) "gaizki" (3 aukera). Horrek bat egiten du jasotako laburpenarekin: oro har, ikasleek %60–%63 artean "oso ongi" eta %30–%35 artean "ongi" baloratu dute proiektua; eta, gainera, LH3B gelakoek balorazio pixka bat positiboagoa egin dute, 3 aukerako erantzunak gutxiago direlako (LH3A: 10 erantzun 3 aukeran /105; LH3B: 4 erantzun 3 aukeran /105).

Galderaz galdera, "Gustura ibili naiz aste hauetan" itemean balorazio positiboa oso altua da: %95 (40/42) (eta zehaztuz, LH3A-n 3 aukeran 2 erantzun agertu dira, eta LH3B-n bat ere ez). "Ikasitako jolasetan arituko naiz" galderan ere joera positiboa nagusitu da: %90 (38/42). Antzeko emaitza ageri da "Orain lehen baino errazago egiten dut euskaraz" itemean: %90 (38/42). "Gure txokoarekin jarraitu nahiko nuke" galderan, berriz, gehiengo aldekoa da: %90 (38/42), nahiz eta hemen 3 aukerako erantzunak ere agertu diren (4/42). Azkenik, "Saiatuko naiz pertsona gehiagorekin euskaraz..." itemean adostasun positiboa erabatekoa da: %100 (42/42), eta ez da 3 aukerako erantzunik jaso.

### 1.3.2 B ikastetxea

Ikastetxe honetan guztira **14 ikasleren ahozko ekoizpenak aztertu dira**. 3 gela daude eta LH3A gelan 7 ikasle aztertu dira, LH3B gelan 3 ikasle eta LH3C gelan 4 ikasle. Jarraian, azterketa horretako emaitza nagusiak jaso ditugu, bai kualitatiboki eta bai kuantitatiboki ere, emaitzak osatuago geratu daitezten:

- Emaitza orokor gisara, ikasleak maila baxu batetik abiatu dira B ikastetxean. Ondorioz, ikastetxe honetako ikasle gehienek puntu bateko jautzia egin dute

(7 ikaslek  $D > C$  eta lau ikaslek  $C > B$ ). Hiru ikasle maila beretsuan mantendu dira (ikasle bat  $D > D+$ , beste ikasle bat  $D > D$ ). Eta ikasle bat bada aurretestutik bertatik A maila batetik abiatu dena eta ondorioz bere horretan mantendu dena ( $A > A$ ).

- Hobekuntzaren emaitzak zehatzago ikusteko, ikasleek jauzirik nabarmenena komunikazio eta eginkizunari egokitzean eta lexikoan egin dutela erakutsi dute datuek. Jauzirik txikiena, aldiz, syntaxian ikusi da.

Hurrengo tauletan ateratako emaitza horiek datuetan laburbildu dira:

<b>B IKASTETXEKO IKASLEEK EMANDAKO JAUZIA</b>		
<b>MAILA</b>	<b>ZENBAT PUNTUTAKO JAUZIA</b>	<b>IKASLE KOPURUA</b>
D > C	1	<b>7</b>
C > B	1	4
A > A	0	1
D > D+	0,5	1
D > D	0	1
GUZTIRA		14

<b>JAUZIA ADIERAZLEKA AZTERTUTA</b>		
<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>JAUZIA EGIN DUTEN IKASLEAK</b>	<b>GUZTIRA EMANDAKO JAUZI KOPURUA</b>
Testuaren egitura, kohesioa eta koherentzia	11	<b>80</b>
Morfologia: Deklinabidea	11	
Morfologia: Aditza	9	
Syntaxia	4	
Lexikoa	<b>14</b>	
Komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzea	<b>13</b>	

Jarioa: Isiltasuna, etenak, makuluak, zalantzak	8	
Jarioa: Diskurtsoa eraikitzekeo estrategiak	10	

Jarraian ikasle baten ekoizpena bere osotasunean hartuta egindako azterketa jaso da adibide gisara, adierazle adierazle aurretetuetatik ondoretuetara dagoen aldea aztertzeko:

<b>IK1: C- &gt;B</b>	
<b>Jauzi esanguratsuak honako adierazle hauetan eman ditu: lexikoan, morfologian (deklinabidea) eta testuaren egituran.</b>	
AURRETESTUA	ONDOTESTUA
<p><b>IK1: Iz-izena esango dut?</b>  <i>IRK: E:z/ SF/ ez da beharrezkoa/ lasai/ Zuk esan behar didazuna da/ zer jolas.../ zein jolas pentsatu duzun</i>  <b>IK1: Ase-si-no</b> [tonu baxuan]  <i>IRK: Benga/ esan lasai [tonu baxuan]</i>  <i>IK1: Asesinoa [oso baxuan, baina grabagailutik hurbil]</i>  <b>IK1: (3') E: pertsona bat dago:/ eta besteak fila batean (2') eta bat... eta pertsona bat pentsatzen du zein den asesino/ eta: Sheriff m zein den (3') eta: Sheriff behar du: asesinoa:...</b>  <i>IRK: Badakigu nola den asesino euskaraz?</i>  <i>IK2: Asesinoak</i>  <i>IK3: No, asesino</i>  <i>IRK: Zer egiten dute asesinoek?</i>  <i>IK4: Lapurrak</i>  <i>IK5: Matar</i>  <i>IK6: Lapurra es ladrón</i>  <i>IRK: Eta-eta-eta/ matar euskaraz zelan esaten dugu?</i>  <i>IK: Hil</i>  <i>IK7: Hiltegia [beste ikasle batek azken hitz hau errepikatu eta barrezka hasten dira]</i>  <i>IRK: Hil/ orduan?/ Hil.../ Hiltzailea izango da/ bai?</i>  <b>IK1: Hiltzailea/ eta: hiltzailea:... (3') hiltzen... ez (4') Nola esaten da</b></p>	<p><b>IK1: Azalduko dudun jolasaren izena armiarma da (4') lagunekin jolasten da eta espazio handi batean (2') lehenengo pertsona bat erdian jartzen da/ gero behar du harrapatu pertsona bat/ eta harrapatzen badio erdian jarri behar da eta ezin da mugitu/ horrela jarri behar da [beso eta hankak zabaltzen ditu] (5') materiala e: ez da... ez dago materialik/ ez be... ez du behar material... [ekoizpena guztiz amaitu aurretik ondoko ikaskideari heltzen dio, hasteko eskatuz bezala]</b></p>

**para que mate?/ Nola esaten da para que mate?** [ikasleetako batzuk zarata ateratzen dabiltzanez hauei isiltzeko eskatzen dabil IRK]

IRK: Barkatu?

**IK1: Nola esaten da para que mate?**

IRK: Hiltzeko

**IK1: Hil-tze-ko/ e: pertsonak behar du ukitu: (3') bizkarrean** [bitartean, ikasle batzuk zarata sortzen dabiltza]

IRK: [isiltzeko eskatzen du] Mesedez/ ez dut entzuten/ bai?/ IK8 mesedez/ Bizkarrean? [buruarekin baietz egiten dio IRKK]

**IK1: Eta: listo**

IRK: Bale/ eta galderatxo bat SF:/ eta jolasa nola deitzen da?

**IK1: Asesino**

IK9: Asesinoak

IRK: Bale/ oso ondo

**Gaitasun linguistiko-testualari dagokionez**, jauzia nabarmena da testu egituran eta kohesioan. Aurretestuan, jolasa azaltzerako orduan, ez da gai irakaslearen galderak tartekatu gabe jolasa azaltzeko (*pertsona bat dago:/ eta besteak fila batean eta bat... eta pertsona bat pentsatzen du zein den asesino/ eta: Sheriff m zein den eta: Sheriff behar du: asesinoa:...*). Ondotestuan, aldiz, irakaslearen inolako laguntzarik gabe eman ditu azalpenak.

Deklinabide-kasuetan ere garapena egon da. Nahiz eta aurretestuan NON (*fila batean*) eta NOR (*pertsona bat*) kasu markak baliatu diren, ondotestuan NOREKIN (lagunekin), NON (*espazio handi batean, erdian jarri behar da*) eta NOR (*pertsona bat*) kasu markak baliatu ditu. Guztiak, berariaz landu dituzten deklinabide kasu markak dira.

Aditzari dagokionez, aurretestutik ondotestura ez da ia alderik ikusi, maila aldatzeko adinakorik behintzat. Sintaxian, ordea, perpausen kopuruari dagokionez, jauzia nahiko handia da. Aurretestuan 5 perpaus ekoitzi ditu (horietatik 3 perpaus elkartuak eta lokailuaren bitartez eta menpeko 2 perpaus) eta ondotestuan, aldiz, 10 perpaus (3 perpaus bakun, 3 perpaus elkartu eta lokailuaren bitartez, 2 perpaus elkartu gainerako lokailuekin eta menpeko 2 perpaus).

Hiztegiari dagokionez ere garapena handia da (bi puntuko jauzia eman du, hau da, D > B). Aurretestuan lexiko kopuru murrizta dago eta aditz ekintzak ere gutxi agertzen dira (*pentsatzen du*). Horrez gain, gaztelaniazko hitzak darabiltza (*asesino, fila, sheriff*). Ondotestuari erreparatuz gero, aditz ekintzen eta euskarazko izenen kopurua handiagoa da (5 aditz ekintza eta euskarazko 8 izen) eta gainera, euskarazko lexikoa soilik erabiltzen du.

**Dimentsio diskurtsibo-erretorikoari dagokionez**, egoera komunikatiboari erantzuteko orduan, beregaina den mezua soilik hartuko bagenu, mezua aurretestuan ez da ulertu. Ondotestuan, ordea, egoera komunikatiboari egokitu

zaio eta mezua ulertu da. Gainera, hartzaileari egokitzen saiatu da eta horretarako adibide eta zehaztapenak eman dira (*horrela jarri behar da [beso eta hankak zabaltzen ditu]*).

Bestalde, diskurtsoa etena ikusi da aurretestuan, baina ondotestuan jarrioz adierazten da nahiz eta gutxi batzuetan isilune eta zalantzak adierazten diren. Diskurtsoaren konplexutasunari dagokionez ere garapena atzeman daiteke; izan ere, aurretestuan ez bezala, adibideak eta zehaztapen txiki batzuk egiteko gai da.

### Gainerako ikasleen emaitzak:

#### **IK2: C > B**

Jauzia adierazle guztietan egin du sintaxian eta jarioan izan ezik; adierazle horietan C mailan mantendu da.

#### **IK3: A > A**

Adierazle guztietan maila berdinean geratu da.

#### **IK4: C > B**

Jauzia adierazle guztietan egin du sintaxian eta jarioan izan ezik; adierazle horietan C mailan mantendu da.

#### **IK5: D > C**

Jauzia adierazle guztietan egin du morfologian (deklinabidean) izan ezik; adierazle horretan D mailan mantendu da.

#### **IK6: D > D**

Adierazle guztietan maila berdina mantendu du lexikoan izan ezik; adierazle horretan C maila eskuratu du.

#### **IK7: C > B**

Jauzia adierazle guztietan egin du sintaxian izan ezik; adierazle horretan C mailan mantendu da.

#### **IK8: D > C**

Jauzia adierazle guztietan egin du morfologian izan ezik; adierazle horretan D mailan mantendu da.

#### **IK9: D > C**

Jauzia adierazle guztietan egin du. Gainera, testuaren egitura eta morfologian (deklinabidean) B maila eskuratu du.

**IK10: D > C**

Jauzia adierazle guztietan egin du sintaxian izan ezik; adierazle horretan D mailan mantendu da.

**IK11: D > C**

Jauzia adierazle guztietan egin du, morfologian (deklinabidean) izan ezik; adierazle horretan D mailan mantendu da.

**IK12: D > D**

Adierazle guztietan maila berdinean geratu da.

**IK13: D > C**

Jauzia adierazle guztietan egin du. Gainera, sintaxian B maila eskuratu du.

**IK14: D > C**

Jauzia adierazle guztietan egin du, morfologian (deklinabidean) eta sintaxian izan ezik; adierazle horietan D mailan mantendu da.

**Adierazle kuantitatiboak** aintzat hartuta, honako alderdiak kontuan hartu beharrekoak dira:

- Diskurtsoaren luzera

Ikaslea	Aurretetua	Ondotetua	Hazkunde-faktorea
IK1	26	52	2,00
IK2	33	59	1,79
IK3	233	158	0,68
IK4	76	84	1,11
IK5	26	33	1,27
IK6	17	18	1,06
IK7	37	70	1,89
IK8	32	34	1,06
IK9	11	28	2,55
IK10	33	64	1,94

IK11	16	36	2,25
IK12	19	32	1,68
IK13	10	37	3,70
IK14	26	59	2,27

**B ikastetxeko ikasleen ondotestuetako hitz-kopurua aurrettestuetako hitz-kopuruarekin alderatuz gero, hitz-kopurua asko ugaritu da;** hazkunde-tasaren batez bestekoa kontuan hartuz, **1,80 gehiago ekoiztu** dute ikasleek. Taulako datuak aztertuz gero, ikasle bakar batek izan ezik (aurrettestuan 233 hitz ekoizti ditu eta ondotestuan, aldiz, 158), gainontzeko ikasleek hobekuntza handia erakutsi dute diskurtsoaren luzeran.

- Zuzentasun mailari dagokion akats kopurua aurrettestutik ondotestura (deklinabidean)

Ikaslea	Aurrettestua	Ondotestua	Hazkunde-faktorea
IK1	2	0	0
IK2	2	0	0
IK3	5	3	0,6
IK4	0	1	2
IK5	1	2	2
IK6	0	1	2
IK7	1	0	0
IK8	0	0	1
IK9	0	0	1
IK10	3	0	0
IK11	0	1	2
IK12	2	3	1,5
IK13	10	8	0,8
IK14	2	4	2

Zuzentasunari dagokionez, nahiz eta, oro har, ondotestuko hitzen kopurua ugartu, akatsen kopurua aurretestutik ondotestura jaitsi egin da 6 ikasleren kasuan (adibidez, ikasle bat aurretestuan 5 akats egitetik ondotestuan 3 akats egitera igaro da). Bestetik, 2 ikasleren akats kopurua aurretestuan eta ondotestuan berdinak dira, nahiz eta aurretestutik ondotestura hitz kopuru handiagoa ekoiztu (esaterako, LH3B-2 ikaslea aurretestuan 11 hitz ekoiztetik 28 hitz ekoiztera pasa da, baina ez du akatsik egin ez aurretestuan ezta ondotestuan ere; IK8 ikasleak ez du akatsik egin ez aurretestuan ezta ondotestuan ere). Eta, azkenik, beste 6 ikaslek, ondotestuan aurretestuan baino akats gehiago egin dituzte, baina aurretestutik ondotestura hitz kopurua ugartu egin da. Ondorioz, **ikasleen %42,86k ondotestuan aurretestuan baino akats gutxiago egin dituzte deklinabidean.**

- Sintaxia (perpaus kopurua)

Ikaslea	Aurretestua	Ondotestua	Hazkunde-faktorea
IK1	5	10	2,00
IK2	5	10	2,00
IK3	27	23	0,85
IK4	15	15	1,00
IK5	5	9	1,80
IK6	3	5	1,67
IK7	6	10	1,67
IK8	2	9	4,50
IK9	2	5	2,50
IK10	8	10	1,25
IK11	0	6	0,00
IK12	3	5	1,67
IK13	11	9	0,82
IK14	6	8	1,33

Perpaus kopuruari dagokionez, eta **hazkunde-faktorea** aintzat hartuz gero, **1,65 hazi da batez beste**. Hau da, 11 ikaslek ondotestuan aurretestuan baino perpaus gehiago ekoizti dituzte (adibidez, ikasle bat perpausik ez ekoiztetik 6 perpaus ekoiztera igaro da). Ikasle batek perpaus kopuru bera mantendu du bai aurretestuan

eta baita ondotestuan ere. Eta, amaitzeko, 2 ikaslek ondotestuan aurretestuan baino perpaus gutxiago ekoitzi dituzte, nahiz eta bien arteko aldea txikia izan den (esaterako, ikasle batek aurretestuan 11 perpaus ekoitzi ditu eta ondotestuan, aldiz, 9). Beraz, **aurretestutik ondotestura hobekuntza nabari da ikasleengan perpaus kopuruari dagokionez.**

## B IKASTETXEKO BALORAZIOAREN AZTERKETA: IRAKASLEENA ETA IKASLEENA

Balorazioaren azterketan irakasleen eta ikasleen ekarpenak jaso eta sistematikoki aztertu dira, inplementatutako jardueren egokitasuna eta jasotako esperientzia balioesteko.

### a) Irakasleen balorazioa (kualitatiboa)

Berba-lapiko proiektuaren inguruan irakasleen balorazioak aztertuta, honako alderdiak nabarmendu dira: prestakuntza, metodologia eta materiala, eta irakasleen ustez ikasleek egindako aurrerapena.

- **Prestakuntza**

Irakasleen esanetan, ahozkoitasuna lantzeko estrategia berriak jaso dituzte, bereziki esku-hartzean fokua non jarri behar den ikusteko:

---

*Formakuntzan esan ziguten, adibidez, ikasleak akatsak egiten dituenean ez zuzentzeko denbora guztian eta zentratzeko 2-3 pautatan. Eta zuzenketak egiteko bestelako estrategiak erabiltzea, ba errepikapenen bidez etab.*

---

Oro har, prozesuan zehar oso ondo sentitu dira: dena ondo joan dela adierazi dute, eta ez zaiela zaila egin. Hala ere, prestaketan materiala errepasatzeari denbora gehiago eskaini beharko litzaiokeela azpimarratu dute:

---

*Denbora agian gure artean bildu eta materiala begiratzeko, ideiak gure artean partekatze...*

---

- **Metodologia**

Metodologiak, oro har, harrera ona izan du. Erritmo oso ezberdinak egon diren arren, hobekuntza nabaria izan dela adierazi dute irakasleen ahozko ekoizpenean, bereziki maila baxuagoa dutenen artean:

---

*Hasierako ekoizpenak izan ziren oso oso sinpleak, antolatzailek gabe, ez zekiten zer azaldu... Eta orain euskarri hori izanda ba aldaketa handia ikusten da.*

---

Irakasleek ezinbestekotzat jo dute ahozkoitasuna lantzeko sistematizazioa, eta Berba-lapikok "hizkuntza betaurrekoak" jartzen lagundu diela azpimarratu dute. Galdetegiko emaitzetan ere behin eta berriro agertu da sistematizazioaren

garrantzia: irakasleak eskertuta egon dira eta ahozkotasuna lantzeko oso baliagarria izan zaiela esan dute.

- **Saioen antolaketa eta errutina**

Metodologia honetan saioa egunero, ordu berean, 20-30 minutuz egiten dutela azaldu dute:

---

*9:30etan sartzten dira eta 10:30ak arte egoten ginen, txamarrak utzi eta igo etab... bai, 20-30 minutu.*

---

Gainera, lehenengo orduan egitea egokitzen jo dute, goiza hasteko errutina edo "asanblada" moduan:

---

*Oso egokia da lehenengo orduan egitea, goizeko asanblada moduan edo errutina moduan goiza hasteko.*

---

- **Materiala**

Materialari buruz, egokitzapen zehatz batzuk egitea proposatu arren, irakasleen ustez saioak argi bideratuta daude eta materiala ondo antolatuta dago: lagungarria eta erabilgarria dela adierazi dute.

---

*Pertsonalki asko eskertzen da saioak hain bideratuta egotea. Oso antolatuta.*

---

- **Egokitzapen-zailtasunak**

Aldi berean, balorazioetan, taldearen izaerara ez ezik, ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko zailtasuna ere agertu da:

---

*Egia da 2-3 ikaslerekin, erdaldunak direnak, batzuetan frustratuta ibili garela. Baina ohiko klase orduetan gertatzen da ere.*

---

- **Ikasleen motibazioa, jarrera eta ikasitakoa (irakasleen ikuspegitik)**

Irakasleen arabera, hasieran ikasleak nahiko galduta zeuden, baina hobekuntza handia ikusi da ahozkotasunean hasierako grabazioetatik azkenekora. Hala ere, beldur dira ea ikasleek aurten landutako edukiak barneratuko dituzten datorren ikasturteari begira. Orokorrean, ahozkotasunean arazoak ikusten dituzte bai euskaraz bai gaztelaniaz ere.

---

*Lehenengo aurkezpenean ikasleak bakarrik jolasaren izena esaten zuen eta ya. Handik bukaerara hobekuntza handiak ikusi dira.*

---

Irakasleek ikasleen motibazioa goraipatu dute, bereziki jolasak aurkezten aritu zirenean:

---

*Esan genianean gorputz-hezkuntzako irakasleak izango zirela eta bigarren mailako ikasleei euren jolasak azaldu behar zizkietela, hor oso motibatuta ibili ziren.*

---

Ikasleak, oro har, oso gustura ibili direla adierazi dute:

---

*Goizean oso gustura sartzen ziren gelara jakinda Berba-Lapiko zutela. Egunen batean ezin bagenuen Berba-Lapiko egin, ikasleek eskatzen zuten.*

---

Irakasleen esanetan, gustura aritzeaz gain, ikasleek asko ikasi dute: esaldi egiturak eta antolatzaileak barneratu dituzte eta ekoizpenetan nabaritu egin da; ekoizterakoan ikasleek erakutsi duten segurtasuna ere azpimarratu dute irakasleek.

---

*Hasierako ekoizpenak izan ziren oso oso sinpleak, antolatzaileak gabe, ez zekiten zer azaldu... Eta orain euskarri hori izanda ba aldaketa handia ikusten da.*

---

Prozesuan zehar hobekuntzak ikusi dira ikasleengan: hasieran segurtasun falta nabaria omen zen hiztegiaren aldetik ekoizterako garaian, baina prozesuak aurrera egin ahala hori ere garatzen joan direla adierazi dute:

---

*Euskarri hori eta segurtasun hori izanda, badakitela zer esan behar duten, ba horrek egiten die lasaiago egotea eta parte-hartzaile gehiago.*

---

- **Balorzio orokorra**

Balorzio orokorra positiboa da: ikasleak prozesu osoan zehar oso gustura ibili direla azpimarratu dute. Oztupo nagusitzat irakasleen eta ikastetxearen antolakuntza aipatu dute (grebak tarteko, etab.). Bestalde, nahiz eta metodologiak lan handia eskatzen duen, datorren ikasturtean Berba-lapikoarekin aurrera egingo lukete.

## b) Ikasleen balorzio (kualitatiboa eta kuantitatiboa)

Hiru gelatan egin dira taldeko elkarrizketak.

### LH3A

- Ikasle gehienek diote ahozko azalpenaren antolaketa hobetu dutela.

---

*Nik ez nekien antolatzaileak eta hori, zerbait azaldu euskeraz eta hori lagundu dit hobeto egiten.*

*Todas esas cosas yo ya los sabía (...) bueno las antolatzailles no (...) no sé bueno más o menos.*

*Ze nik ez dakien zer behar dugu esan materiala eta nola jolasten dan eta hori, eta antolatzaileak.*

---

*Ez nekien existitzen dira antolatzaileak.*

---

- Proiektuan amaieran errazago aritu direla diote oro har. Azalpenetan agertu diren ideiak: hasieran jolastu egin zutelako; amaieran ez zelako hain ludikoa; bukaeran forma eta hitz berriak ikasi dituztelako eta antolatzaileak asko errepikatu dituztelako; edo bietan berdin erraza izan dela:

---

*(Hasieran) gauza batzuk ez nekizkien, algunas palabras.*

*Ze nik ez nekien lehenengo egin zait erreza eta gero zaila zergatik egin dugu Oka jolasa eta gero lan egin dugu pixkat.*

*Dena erreza egin zait.*

*Ze nik ya banekien zerbait azaldu, baina orain hobeto egiten dut eta uste dut orain hobeto egiten dudala (..) bukaeran, ze ya banekien antolatzaileak, ya banekien...*

---

- Gustuko jardueren artean, gehienek eskulanak (papiroflexia) aipatu dituzte; batzuek jolasak ere bai:

---

*Papiroflexia, ze oso dibertigarria da eta gauzak egin (...) ze egiten dugu gauzak gustatzen zaidanak.*

*Ze dena egin ahal da papiroflexiarekin, eta kartoiak, paperezko hegazkinak, eta gauza asko.*

*Jolasak. Ze oso dibertigarriak dira.*

*Papiroflexia ze nik txikitatik egiten ditut eskulanak eta asko gustatzen zaizkit egitea...*

*Jolasak ze lagunekin egin daitekeelako.*

*Eskulanak gustatzen zait egitea eta txikitik handira e oso "me relaja".*

---

- Oro har, euskaraz hitz egiten ikasi dutela adierazi dute; hizkuntzaren egitura eta formak, eta aurkezpenen prestaketa ere bai:

---

*Antolatzaileak.*

*Euskara.*

*Nola prestatu aurkezpenak.*

---

### **LH3B**

- Esaldi-egiturak, hitz zehatzak eta antolatzaileak ikasi dituztela adierazi dute, eta baliagarritzat jo dute:

---

*Bai, zergatik hobetu dut euskeraz hitz egin eta hitz batzuk.*

*Bai, zergatik ikasi dut nola egin esaldiak ondo euskeraz.*

*Eta antolatzaileak.*

---

- Gehienek amaieran erraztasun handiagoa sentitu dute hasieran baino, orain antolatzaileak ezagutzen dituztelako:

---

*Orain, ze lehen antolatzaileak ez (eta orain erabiltzen dituzu?) bai.*

*Lehen, ze lagundu didate.*

---

- Gehienei eskulanak egitea gustatu zaie; batzuei jolasak; bati "armiarma-sarea" ariketa:

---

*Artilearekin egin genuen armiarma-sarea.*

*Jolasak.*

*Eskulanak.*

---

- Euskara-maila hobetu dutela diote, bereziki ahozkotasunean:

---

*Nola hitz egin euskeraz.*

*Antolatzaileak.*

---

- Denek gustuko dute Berba-lapiko, eskola-dinamikatik "irteten" delako (jolasak, musika...) eta dibertigarria iruditzen zaielako:

---

*Bai ze gustatzen zait Berba-lapiko, ze jolasak egin ditugu.*

*Ze musika berria entzun dut.*

*Bai ze oso dibertigarria da.*

---

### LH3C

- Euskaraz hobeto egiten ote duten galdetuta, gehienek "kilin-kolon" erantzun dute: bazekizkiten gauza batzuk, baina gehiago ikasi dutela:

---

*Nik kilin-kolon, banekien gauza batzuk baina ikasi dut gehiago.*

---

- Bukaeran hasieran baino errazago aritu direla diote, prestatuagoak zeudelako:

---

*Bukaeran, ze lehenengo aldian ez dugu dena ikasi eta bukaeran ya egin dugu dena eta ya ikasi dugu.*

---

- Gehienei eskulanak gustatu zaizkie, batez ere papiroflexia.

---

*Papiroflexia, ze daukat asko nire etxean.*

*Eskulanak zergatik etxean egiten dut asko.*

---

- Euskara-maila hobetu dutela diote, bereziki ahozko azalpenetan:

---

*Euskeraz (gehiago) hitz egin.*

*Esplikatu jokoak (eta bota duzu zerbait faltan ala nahikoa iruditu zaizu) nahikoa.*

---

- Oro har, batzuek jarraitu nahiko lukete Berba-lapiko bezalako dinamika batekin; beste batzuek ez:

---

*Baina bai taldean jolasak azaltzea.*

*Ninguna.*

---

**Balorazio kuantitatiboari dagokionez**, ikasleei bost galdera egin zaizkie Berba-Lapiko proiektuaren inguruan, jakiteko gustura ibili ote diren, ikasitako jolasetan aritu ote diren, euskaraz lehen baino errazago egiten ote duten, jarraitu nahiko ote luketen eta euskaraz pertsona gehiagorekin hitz egiten saiatu ote diren. Guztira, 55 ikaslek erantzun dute galdera bakoitza (275 erantzun). Oro har, datuek erakusten dute **balorazio positiboa** nagusitu dela: **%90 ingurukoa** da 1 eta 2 aukeren (oso ongi/ongi) pisua (248/275), eta %10 (27/275) izan da 3 aukerakoa (gaizki edo negatiboa). Aurrez jasotako laburpenarekin bat etorritik, proiektua orokorrean oso ondo baloratu da; zehazki, gustura ibili ote diren galdetuta, 4 ikaslek baino ez dute negatiboki baloratu, eta gainerako guztiek oso ongi edo ongi baloratu dute; gainera, gehiengoak Berba-lapikorekin jarraitzearen aldeko iritzia eman du.

Galderaz galdera, "Gustura ibili naiz aste hauetan" itemean erantzun positiboak oso altuak dira (51/55; %93). "Ikasitako jolasetan arituko naiz" galderan joera are positiboagoa da (53/55; %96). "Orain lehen baino errazago egiten dut euskaraz" itemean ere gehiengoak positiboki erantzun du (47/55; %85). "Gure txokoarekin jarraitu nahiko nuke" galderari dagokionez, balorazioak oso positiboa izaten jarraitzen du (49/55; %89). Azkenik, "Saiatuko naiz pertsona gehiagorekin euskaraz..." itemean ere joera positiboa nagusi da (48/55; %87).

### 1.3.3 C ikastetxea

Ikastola honetan guztira **14 ikasleren ahozko ekoizpenak aztertu dira**, hau da, gela bakoitzean 7na ikaslerenak (LH3An 7 ikasle eta LH3Bn beste 7 ikasle). Jarraian, azterketa horretako emaitza nagusiak jaso ditugu, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki, emaitzak osatuago gera daitezten:

- Emaitza orokor gisara, aztergai izan ditugun ikasleak maila altu batetik abiatu dira. Ikastola honetako 8 ikaslek puntu oso bateko jauzirik egin ez duen arren, (B > B+ edo C > C+) hainbat adierazletan hobekuntzak ikusi dira. Bestalde, 5 ikaslek mailaz igotzea lortu dute, puntu bateko jauzia eginez (C > B).
- Hobekuntzaren emaitzak zehatzago ikusteko, ikasleek jauzirik nabarmenena testu egituran eta koherentzian eta lexikoan egin dutela adierazten dute datuek. Jauzirik txikiena, berriz, eginkizunari egokitzeko adierazlean ikusi da.

Hurrengo tauletan ateratako emaitza horiek datuetan laburbildu dira:

<b>C IKASTETXEKO IKASLEEK EMANDAKO JAUZIA</b>		
<b>MAILA</b>	<b>ZENBAT PUNTUTAKO JAUZIA</b>	<b>IKASLE KOPURUA</b>
B > B	0	2
C > C	0	<b>6</b>
C > B	1	5

B > A	1	1
<b>GUZTIRA</b>		<b>14</b>

<b>JAUZIA ADIERAZLEKA AZTERTUTA</b>		
<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>JAUZIA EGIN DUTEN IKASLEAK</b>	<b>GUZTIRA EMANDAKO JAUIZI KOPURUA</b>
Testuaren egitura, kohesioa eta koherentzia	8	<b>54</b>
Morfologia: Deklinabidea	7	
Morfologia: Aditza	7	
Sintaxia	7	
Lexikoa	<b>9</b>	
Komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzea	<b>9</b>	
Jariora: Isiltasuna, etenak, makuluak, zalantzak	3	
Jariora: Diskurtsoa eraikitzekeo estrategiak	4	

C ikastetxeko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, ikastetxe honetan **beste aldagai bat** txertatu nahi izan da: **etxeko hizkuntza**. Ikastetxeak emandako datuen arabera, LH3A gelan 10 ikaslek euskara etxetik dakarte eta 14 ikaslek gaztelera; LH3B gelan, 13 ikaslek dakarte euskara etxetik eta 9 ikaslek gaztelera.

Hortaz, emaitzak ere bi taldetan sailkatu dira: alde batetik, etxetik euskara dakartenen taldea osatu da eta, bestetik, etxetik gaztelera (edo beste hizkuntzaren bat) dakartenen:

- **Etxetik euskara:**

Emaitzen arabera, etxetik euskara dakarten ikasleak, oro har, C maila batetik abiatu dira eta B mailarako jauzia eman dute. Hala ere, badaude 3 ikasle jada B maila batetik abiatu direnak eta B+ edota A mailarako igoera egin dutenak.

Jarraian, euskara etxetik dakarren ikasle baten ekoizpena bere osotasunean hartuta egindako azterketa jaso da adibide gisara, adierazle adierazle aurretestuetatik ondoretuetara dagoen aldea aztertzeko:

<b>IK1: B &gt; A</b>	
<b>Ikasle hau ia adierazle guztietan igo da mailaz, jarioan izan ezik.</b>	
AURRETESTUA	ONDOTESTUA
<p> <i>IRK: Orduan/ hasiko gara aurkezpenekin/ bai?/ Orduan IK1 hasiko da/ ados?</i> </p> <p> <b>IK1: e:: nire jolasa esku-jolas bat da e::/ da joku bat e jarri behar zaretela bikoteka/ eta batek jartzen ditu eskuak goian/ eta besteak behean/ eta saiatu behar du e azpikoak eskuak ateratzen e/ eta txoka ematen/ eta lortzen badu e::/ bestea da azpian/ eta bestea goian/ eta ez baldin badu lortzen/ berriro hasten da</b> </p> <p> <i>IRK: Oso ondo IK1/ amaitu duzu?/ [buruarekin baietz erantzuten dio] primeran</i> </p>	<p> <b>IK1: Kaixo ni LH3ko IK1 naiz eta jolas bat azaltzera nator/ jolas honen izena armiarma-sarea deitzen da/ armiarma-sarera jolasteko 30 pertsonetikan beherako pertsonak jolastu ahal dute/ eta e:m ez da asko eta harizko bola handia behar da/ armiarma-sarera jolasteko/ orain azalduko dizuet nola jolasten den/ lehenengo pertsona... lehenengo borobil batean jartzen zarete/ ondoren pertsona batek gai bat botatzen du/ gero nahi duenari pasatzen dio/ azkenik pertsona horrek e: gai horri buruz zerbait esan behar du/ eta horrela harizko bola amaitu arte/ eta: araua da/ ezin dela harizko bola askatu/ hau izan da nire aurkezpena</b> </p>
<p> <b>Gaitasun linguistiko-testualari dagokionez</b>, aurretestuan, informazio edukia ez dago erabat osatuta. Bereziki esku-jolas honetan NOLA jolasten den galderari erantzuten dio eta baita, neurri batean, partaideek egin behar dutenari ere. Honako elementuak ez dira agertzen: non jolasten den, norekin jolasten den eta ea jolaserako materialik behar den. Ondotestuan, aldiz, jolasa ongi egituratuta azaltzen du: gairatze bat dago (<i>jolas bat azaltzera nator / jolas honen izena armiarma-sarea da</i>), zenbat partaide behar diren adierazten du (<i>30 pertsonetikan beherako pertsonak jolastu ahal dute</i>) eta jolaserako zer behar den ere azaltzen du (<i>harizko bola handia behar da armiarma-sarera jolasteko</i>). Erreferentziazko mekanismoak ere ugari agertzen dira diskurtsoa lotzeko: (<i>jolas honen izena; pertsona horrek; gai horri buruz; horrela</i>).         </p> <p>           Deklinabide kasu markak zuzen erabili ditu bi testuetan: aurretestuan, NOR (<i>esku-jolas bat</i>), NON (<i>goian, behean</i>) eta ondoretuan, NOR (<i>harizko bola</i>), NON (<i>borobil batean</i>) eta NORI (<i>nahi duenari</i>).         </p> <p>           Sintaxiari dagokionez, ondoretua aberatsa izan da. Perpaus koordinatu ugari ikusi dira (<i>lehenengo borobil batean jartzen da</i>), baina baita helburuzko prepausak (<i>harizko bola handia behar da armiarma-sarera jolasteko</i>), erlatibozkoak (<i>gero</i> </p>	

*nahi duenari pasatzen dio) eta konpletiboak ere (orain azalduko dizuet nola jolasten den).*

Hiztegian A maila eskuratu du eta euskarazko izen asko gehitu ditu ondotestuan (*borobil, aurkezpena, harizko-bola, armiarma-sarea...*). Hala ere, bi kasuetan erakutsi du hiztegi maila ona.

**Dimentsio diskurtsibo-erretorikoari dagokionez**, egoera komunikatiboari oso ondo egokitu zaio ondotestuan. Gauzak horrela, ondotestuan baliabide metadiskurtsiboak erabiltzen ditu: (*orain azalduko dizuet nola jolasten den; jolas bat azaltzera nator*). Ez du ez adibide zehatzik ez birformulazio edo adibideak emateko baliabiderik erabiltzen, baina zehaztapena lortzeko erreferentzia-mekanismo ugari baliatzen ditu: (*jolas honen izena; pertsona horrek; gai horri buruz*).

**IK2: C > B**

Jauzia adierazle guztietan egin du sintaxian izan ezik; sintaxian C mailan mantendu da.

**IK3: C > B**

Jauzia adierazle guztietan egin du.

- **Etiket gaztelera:**

Emaitzen arabera, etiket gaztelera ekartzen duten guztiak C mailatik abiatu dira. Dena den, jauzia ikusi da ikasle gehienetan nahiz eta jauzi hori txikia izan den batzuetan (C > C+). Bi ikaslek puntu bateko jauzia egin dute (C > B).

Jarraian, etiket gaztelera dakarren ikasle baten ekoizpena bere osotasunean hartuta egindako azterketa jaso da adibide gisara, adierazle adierazle aurretuetatik ondotuetara dagoen aldea aztertzeko:

**IK8: C > C+**

**Maila berean geratu da baina honako adierazleetan B maila eskuratu du: jarioan eta lexikoan.**

AURRETESTUA	ONDOTESTUA
<p><i>IRK: ordun/ lehenbizikoa:/ bai?/ lehenbizikoa izango da IK8/ bere jolasa azaltzen/ IK8/ IK8prest zaude? [buruarekin baietz]/ bale ba ozen/ bale?/ azaldu behar dezu zure jolasa/</i></p>	<p><b><i>IK8: bigarren jolasa:/ bolabanko deitzen da (3') behar den materiala: (4') lau banko eta zortzi koltxoneta dira (4') alde bakoitza:n bi banko jartzen dira/ eta beraien aurrea:n bi koltxoneta/ eta beste aldean</i></b></p>

<p> <i>zein jolasa den/ zer egin behar degun/ zein den helburua</i>  <b>IK8: e: m: memory chess jolasa deitzen da: e:m/ erloju bat bezalako borobila da:/ eta ditu fitxatxo ba:tzu:k/ di-tula gameluare:n loilaren berdina behian eta margotuta daude kolore batzuetaz/ eta dado bat bota behar da:/ eta gero: kolorea tokatu zaizula altxa/ eta kolore hori bada:/ zuretzat puntu bat/ eta ez bada/ utzi behar dezu berriro</b>  <i>IRK: bale/ oso ondo/ zerbait gehio? [buruarekin ezetz]</i> </p>	<p> <b><i>berdin/ erdia:n lau koltxoneta jartzen dira (2') eta: pi-lo-ta frisbeea botatzen dira: (3') eta taldeko ba:t.../ bi talde egiten dira/ eta taldeko ba:t beste aldeko bankura igotzen da/ botatzen ditugunean frisbeeak ala pilota:k (4') bankuan igota dagona:/ hartu behar ditu/ eta hartzen badu:/ bere taldekoa: igotzen da/ hola (2') guztiak igo arte:</i></b> </p>
--	--

**Gaitasun linguistiko-testualari dagokionez,** testu egiturari dagokionez maila beretsuan ikusi da. Hala ere, aurrettestuan jolasa NOLA jolasten den ez da ongi ulertzen, beraz, C maila baxu batetik abiatu eta C maila altuago batera igotzea lortu du.

Deklinabide kasu marka bakarra erabili du aurrettestuan (NOR absolutiboa-*dado bat*), eta ondotestuan, aldiz, honako hauek gehitu ditu (NON-*alde bakoitzean, beraien aurrean, beste aldean, erdian*; NORA-bankura). Ondotestuan, ergatibo mailako akats bat du (*bankuan igota dagona hartu behar ditu*).

Aditzari dagokionez, aurrettestutik ondotestura ez dago alde handirik. NOR NORK motako aditz bakanen bat erabiltzen du, baina, oro har, NOR motakoak dira. Ez du etorkizuneko formarik erabiltzen.

Sintaxiari dagokionez, bi testuen artean ez dago alde handirik. Aurrettestuan, baldintzazko esaldi bat erabili du, besteak beste (*eta kolore hori bada zuretzat puntu bat eta ez bada utzi behar dezu berriro*). Ondotestuan, erlatibozko bi esaldi (*behar den materiala lau banko eta zortzi koltxoneta dira; bankora igota dagona hartu behar ditu*) eta denborazko esaldi bat (*botatzen ditugunean frisbeeak ala pilotak*) gehitu ditu.

Ondotestuan, aurrettestuan ez bezala, azpimarratzekoa da lexikoa apur bat aberatsagoa dela. B maila baxu bat lortu du adierazle honetan, eta honako datu hauek nabarmendu behar dira: ondotestuan aurrettestuan baino 7 aditz ekintza eta 3 izenondo gehiago erabili ditu. Hala ere, esan beharra dago, ondotestuan gaztelaniazko hitz dezente erabiltzen dituela (*bolabanko, banko, koltxoneta*).

**Dimentsio diskurtsibo-erretorikoari dagokionez,** ikaslea egoera komunikatiboari neurri batean egokitu zaiola ondorioztatu daiteke. Aurrettestutik ondotestura ez dago ia alderik, baina, esan beharra dago, ondotestuan aurrettestuan baino isilune gehiago atzematen direla.

**IK11: C > C+**

B mailarako jauzia lexikoa eta sintaxian egin du; gainontzeko adierazleetan C+ mailan eskuratu du.

**IK12: C > C+**

B mailarako jauzia sintaxian egin du; gainontzeko adierazleetan C+ mailan eskuratu du.

**Adierazle kuantitatiboak** aintzat hartuta, honako alderdiak kontuan hartu beharrekoak dira:

- Diskurtsoaren luzera

Ikaslea	Aurretestua	Ondotestua	Hazkunde-faktorea
IK1	48	93	1,94
IK2	142	83	0,58
IK3	74	77	1,04
IK4	30	54	1,80
IK5	55	72	1,31
IK6	83	90	1,08
IK7	30	60	2,00
IK8	50	76	1,52
IK9	17	33	1,94
IK10	102	84	0,82
IK11	73	42	0,58
IK12	17	41	2,41
IK13	120	78	0,65
IK14	47	34	0,72

**C ikastetxeko ikasleen diskurtsoaren luzera aurretestutik ondotestura hobetu egin dela erakusten dute datuek.** Hazkunde-tasaren batez bestekoa kontuan hartuz, ikasleen **hitz kopurua 1,31 hazi da**. 9 ikaslek ondotestuan

aurretestuan baino hitz kopuru gehiago ekoitzi dituzte (esaterako, ikasle bat aurretestuan 48 hitz ekoiztetik ondotestuan 93 hitz ekoiztera igaro da). Bestalde, 5 ikaslek ondotestuan aurretestuan baino hitz gutxiago ekoitzi dituzte.

- Zuzentasun mailari dagokion akats kopurua aurretestutik ondotestura (deklinabidean):

Ikaslea	Aurretestua	Ondotestua	Hazkunde-faktorea
IK1	0	1	2
IK2	1	3	3
IK3	1	1	1
IK4	1	0	0
IK5	0	0	
IK6	0	1	2
IK7	0	0	
IK8	2	2	1
IK9	0	0	
IK10	0	0	
IK11	0	1	2
IK12	2	1	0,5
IK13	0	0	2
IK14	4	0	0

Zuzentasunari dagokionez, akatsen kopurua aurretestutik ondotestura jaitsi egin da 3 ikasleren kasuan (adibidez, ikasle batek aurretestuan 4 akats egitetik, ondotestuan akatsik ez egitera igaro da). Bestetik, 7 ikasle (ikaslegoaren erdia, hain zuzen ere), maila berean mantendu dira (esaterako, 5 ikaslek ez dute akatsik egin ez aurretestuan ez ondotestuan). Eta, azkenik, beste 4 ikaslek, ondotestuan aurretestuan baino akats gehiago egin dituzte. Ondorioz, **ikasleen %50, deklinabideari dagokionez, maila berean mantendu da.**

- Sintaxia (perpaus kopurua)

Ikaslea	Aurretetua	Ondotetua	Hazkunde-faktorea
IK1	12	17	1,42
IK2	18	12	0,67
IK3	11	9	0,82
IK4	6	8	1,33
IK5	10	14	1,40
IK6	15	16	1,07
IK7	6	10	1,67
IK8	11	12	1,09
IK9	4	6	1,50
IK10	11	12	1,09
IK11	10	6	0,60
IK12	13	9	0,69
IK13	9	7	0,78
IK14	9	8	0,89

Perpaus kopuruari dagokionez, eta **hazkunde-faktorea** aintzat hartuz gero, **batez beste 1,07 hazi da**. Hau da, 8 ikaslek ondotestuan aurretetuan baino perpaus gehiago ekoitzi dituzte (adibidez, ikasle bat aurretetuan 6 perpausik ekoiztetik, ondotestuan 10 perpaus ekoiztera igaro da). Eta, bestalde, 6 ikaslek ondotestuan aurretetuan baino perpaus gutxiago ekoitzi dituzte, nahiz eta bien arteko aldea txikia izan (esaterako, ikasle batek aurretetuan 9 perpaus ekoitzi ditu eta ondotestuan, aldiz, 8).

## C IKASTETXEKO BALORAZIOAREN AZTERKETA: IRAKASLEENA ETA IKASLEENA

Balorazioaren azterketan irakasleen eta ikasleen ekarpenak jaso eta sistematikoki aztertu dira, inplementatutako jardueren egokitasuna eta jasotako esperientzia balioesteko.

## a) Irakasleen balorazioa (kualitatiboa)

Irakasleen balorazioa, bereziki, metodologian eta prestakuntzan oinarritu da.

- **Metodologia**

Metodologiari dagokionez, oro har, irakasleen esanetan materiala oso lagungarria izan da, eta gidoia nahiz irizpideak oso ondo zehaztuta daudela adierazi dute. Hala ere, denboralizazioa oztopo bihurtu da zenbait kasutan, metodologiari eskainitako batez besteko denbora 20-45 minutukoa izan delako. Oso ikastetxe gutxitan egin dira 20 minututik beherako saioak; aldiz, batzuek 45 minutu baino gehiagoko saioak egin dituztela aipatu dute, izan ere, ekoizten ez zuten ikasleek ere parte hartu nahi izaten zuten:

---

*Egia da lagina gauza bat dela, baina gehiengoak parte hartu nahi izaten zuen, beraz, Berba-lapikorekin jarraitzen genuen.*

---

Testigantza horrek aditzera ematen du ikasleek parte hartu nahi zutela; hala ere, irakasleek beste hautemate bat ere azaldu dute, eta diote ikasle batzuek motibazio txikia izan dutela eta ez diotela etekinik atera metodologiari.

- **Prestakuntza**

Prestakuntzari dagokionez, prestakuntzak alde praktiko bat izatearen garrantzia azpimarratu dute, eta baita berrikuntza batzuk txertatzea ere:

---

*Irakasleek jasotako prestakuntza beste era batera bideratu beharko litzateke; hau da, prestakuntzak alde praktiko bat izango balu, lagungarriagoa izan daiteke.*

---

- **Prozesuaren baldintzak eta gorabeherak**

Prozesuaren garapenean, irakasleek oztopo nagusitzat denbora aipatu dute: grebak, edukiak aurrez prestatzeko eskaini behar izan duten denbora, eta irakasle baten baja, besteak beste. Gorabehera handiko prozesua izan dela adierazi dute, baina, hala ere, orokorrean ondo sentitu direla metodologiari lotuta. Era berean, ordezkoi irakaslearen kasua ere aipatu da: bi astez ibili da Berba-lapiko metodologiarekin, gehienbat behaketa bidez ikasi du (beste gelako saioak ikusita eta hori bere gelan aplikatuta), eta, horrez gain, beste gelako irakaslearekin egin zituen kokapen-saioak. Irakasleek diote ordezkoiaren prestakuntza, oro har, behaketan oinarritu dela, baina agian ez dela aski izan.

## a) Ikasleen balorazioa (kualitatiboa eta kuantitatiboa)

Ikasleen iritziek, zenbait kasutan, irakasleen hautematearekin bat egiten dute, baina beste batzuetan bestelako ñabardurak erakusten dituzte.

### LH3A

LH3A gelan, ikasleek adierazi dute egindako ariketek euskaraz hobeto egiten lagundu dietela; bereziki, irakurtzerako, idazterako eta hitzen esanahi berriak barneratzerako garaian. Gainera, antolatzaile berriak ikasteko ere baliagarri izan zaiela diote:

---

*Nik uste dut baietz. Irakurtzen, denok batera irakurtzen eta esaten hitzaren esanahia ze batzuk ez genekien esaten zer esan nahi zuen hitz horrek.*

*Niri lagundu dit irakurtzen eta hitzak hobeto esaten.*

*Batzuetan hitz berdinek esanahi berdina dute eta horiek ikasten lagundu dit.*

---

Ariketak amaieran errazago egin dituztela diote, hasieran baino:

---

*Ni bukaeran, aurkezpenengatik.*

*Niri bukaeran ze hasieran zen zailagoa, oraindik ez genekielako eta bukaeran egin zait errazagoa.*

*Niri hasieran gustatu zait zergatik berria zen*

---

Gehien gustatu zaien ariketa, oro har, aurkezpenak izan dira: oso gustura aritu dira beste ikasleen aurrean ekoizten eta haiekin jolasean ibiltzen, eta askok azpimarratu dute aurkezpenek lotsa eta beldurra kentzen lagundu dietela.

Orokorrean, proiektuak euskaraz hobeto idazten eta irakurtzen lagundu diela diote, eta, horrez gain, aurkezpenak hobeto egiten ikasi dutela, hau da, aurkezpenetan antolatzaile berriak sartzen eta erabiltzen. Era berean, aurrerantzean egingo dituzten ahozko aurkezpenetan, Berba-lapikon ikasitakoa beste ikasgai edo lanetan aplikatuko dutela azpimarratu dute:

---

*Euskaraz hobeto hitz egiten eta euskaraz hobeto idazten.*

*Aurkezpenak hobeto egiten.*

*Antolatzaile eta hitzen esanahiak ikasten.*

*Aurkezpenak egitean antolatzaileak sartzen eta erabiltzen.*

*Besteen aurrean lotsa kentzen.*

---

Etorkizunera begira, horrelako proiektu gehiago egingo lituzketela diote, baina jolasak beharrean bestelako gaiak jorratuz: animalien ingurukoak, kirolak, lehen gizakiak, planetak eta izarrak, besteak beste.

### LH3B

LH3B gelan, irakasleak aipatu duen bezala, ikasle batzuek adierazi dute egindako ariketek ez dietela gehiegi lagundu euskaraz hobeto egiten, egin dituzten gauzak jada ikasita zituztelako. Hala ere, zer ikasi duten galdetuta, aurkezpenak hobeto

egiten ikasi dutela azpimarratu dute eta azalpenak argiago ematen dituztela (ahots tonua, antolatzaileak...):

---

*Hurrengorako ya badakigu nola azaldu gauzak.*

*Altuagoa eta polikiagoa hitz egiten aurkezpenetan.*

---

Bestalde, ikasleen esanetan, gelaren erdiak jarraituko luke hau bezalako proiektuak egiten.

**Balorazio kuantitatiboari** dagokionez, ikasleei bost galdera egin zaizkie Berba-lapiko proiektuaren inguruan. Guztira 40 ikaslek erantzun dituzte (200 erantzun guztira). Oro har, emaitzek erakusten dute ikasleen gehiengo handi batek **balorazio positiboa** egin duela: guztien artean, %86k (1 eta 2 erantzunak) jarrera baikorra adierazi du, eta soilik %14k agertu du balorazio neutro edo negatiboa (3 erantzuna).

Galderaz galdera aztertuta, "Gustura ibili naiz aste hauetan" itemean %92k adierazi du proiektuarekin oso gustura aritu dela. "Ikasitako jolasetan arituko naiz" galderan ere joera positiboa nagusitu da, %83k adierazi baitu ikasitako jolasetan berriro parte hartzeko gogo. "Orain lehen baino errazago egiten dut euskaraz" itemean, ikasleen %88k sentitu du Berba-lapikok lagundu egin diela euskaraz jarduteko erraztasunean, eta horrek proiektuaren helburu nagusietako bat betetzen du. "Gure txokoarekin jarraitu nahiko nuke" galderan, %76k jarraitzeko gogo azaldu du, nahiz eta hemen balorazioak pixka bat apalagoak izan. Azkenik, "Saiatuko naiz pertsona gehiagorekin euskaraz..." itemean, %83k adierazi du euskaraz gehiago hitz egiteko konpromisoa hartu duela.

## 1.4 IKERKETAREN ONDORIO OROKORRAK

Hiru ikastetxeetan egindako azterketa eta ateratako emaitzak kontuan hartuta iritsi gara jarraian mahai-gaineratuko ditugun ondorioetara. Lehenik, ondorio nagusitik abiatuko gara: **ikasleen ahozko hizkuntzan garapen azterna argiak antzeman dira. Ikastetxe guztietan eman da jauzia** ahozko hizkuntzaren lanketan; dena den, aldeak egon dira batetik bestera. Jarraian jaso ditugu ondorio zehatzagoak:

- **Abiatze-maila mailari** dagokionez, hiru ikastetxeetako ikasleen ahozko abiapuntua **ezberdina** izan da: B ikastetxeko ikasleen abiapuntua nahiko baxua izan da; jarraian, A ikastetxeko ikasleak kokatu dira, maila ertainetik abiatu direnak; azkenik, ikasleek hasierako maila nahiko altua erakutsi dute.
- **Jauziari** dagokionez ere, aldea egon da. B ikastetxeko ikasleek eta A ikastetxeetako ikasleek (maila baxuena dutenek) egin dute jauzirik handiena (B ikastetxean, 80 aldiz jazo da jauzia adierazle desberdinetan; A ikastetxean, 61 aldiz; C ikastetxean jauzirik txikiena ikusi da (54 aldiz eman dute jauzia adierazle desberdinetan). Hala ere, A eta C ikastetxeetan egindako jauzietan ez dago alde nabarmenik. Dena den, azken horretako ikasleek egindakoa txikiagoa izan arren, horiek ere lortu dituzte ahozko baliabideak (testu egituratuagoak ekoiztu dituzte lexikoaren ikuspuntutik).
- **Mailari** dagokionez, hauek izan dira emaitzak, ikastetxeka.

- B ikastetxean, mailarik baxuenean hasita, gehienek puntu bateko jauzia egin dute (7 ikaslek  $D > C$  eta lau ikaslek  $C > B$ ), eta hiru ikasle maila berean mantendu dira (ikasle batek  $A > A$  eta  $D > D$  bi ikaslek).
- A ikastetxean, maila ertainetik abiatuta, ikaslegoaren erdia maila berean geratu da (7 ikaslek  $C > C+$  eta lau ikaslek  $C > B$ ). Beste erdiak puntu bateko jauzia eman dute (3 ikaslek  $D > C$  eta 4 ikaslek  $C > B$ ).
- C ikastetxean, 8 ikasle maila berean mantendu dira (2 ikaslek  $B > B+$  eta 6 ikaslek  $C > C+$ ). Ikasle horiek puntu erdiko jauzia egin dute baina aldea ez da nahikoa izan puntu oso bat igotzeko. Bestalde, 5 ikasle mailaz igo dira ( $C > B$ ).
- **Adierazleetan egindako jauziari** dagokionez, alde batetik, maila baxuagoa duten ikasleek (B eta A ikastetxeetakoek), adierazle hauetan egin dute jauzirik handiena: eginkizunari egokitzean, morfologian (deklinabidean) eta lexikoan. Jauzirik txikiena, ordea, adierazle hauetan eman dute: sintaxian eta diskurtsoa eraikitzekeo estrategietan. Beste alde batetik, maila altua duten ikasleek (C ikastetxeetakoek) lexikoan egin dute. Jauzirik txikiena jarioan nabarmendu da.
- Aurreko emaitzak ikusita, **hasierako hipotesia bete egin da**: agerian geratu da C ikastetxean metodologiaren eragina txikiagoa izan dela. Ikastetxe horretan, ikasle askok euskara etxetik dakarte (ikastetxeak emandako datuen arabera, gutxi gorabehera gelakideen erdiak egiten du etxean euskaraz, bi gurasoak edo guraso bat gutxienez euskalduna izanez). Horrek esan nahi du ikasle gehienak maila altuago batetik hasi direla. Bestalde, pentsa daiteke Berba-lapiko metodologiak eskaintzen duen espazioak eta denborak aldaketa txikia eragin ikasle horiengan egunerokotasunean euskaraz aritzen direlako, etxean nahiz eskolan. Ikasle euskaldun kopuru handiak gelako hizkuntza dinamikan ere eragiten du; hortaz, ziurrenik, ikasle horiek euskara entzuteko eta hitz egiteko ohitura handiagoa dute A edo B ikastetxeetako ikasleekin alderatuz gero. Horrek agerian utzi du Berba-lapiko metodologia eremu erdaldunetan erabiltzeko diseinatuta dagoela eta, beste eremu soziolinguistiko batzuetan inplementatu nahi izanez gero, aldagai batzuk egokitu egin beharko lirakeela (material didaktikoa izan daiteke aukeretako bat).

## 2 SEKUENTZIA DIDAKTIKOA (LH5 - LH6): 2025EKO ESPERIMENTAZIOAREN INGURUKO BALORAZIOA

LH5erako “Ondo-ibili” sekuentzia didaktikoaren eta LH6rako “Ni zientzialari” sekuentzia didaktikoak berregin dira 2025eko esperimendazioa egiteko, 2024an egindako berrikusketa sakonaren ondotik. Sekuentzia didaktiko bakoitzaren A eta B bertsioak egin dira, ohi bezala. Ahozkoa irakasteko sekuentzia didaktikoek gorde behar dituzten 13 irizpideak zainduz (Dolz & Silva, 2020)<sup>7</sup> eta ibilbide didaktikoen (Colognesi et al., 2020)<sup>8</sup> ekarpenak aintzat hartuz berregituratu dira, ahozkotze prozedura berriak txertatuz. Hori guztia, beti ere, irakasleekin orain arteko esperimendazio eta ebaluazioetan ontzat edo egonkortuzat jo diren atalak eta jarduerak mantenduz egin da. **2025ean sekuentzia didaktikoetan jasotako berrikuntzak** honakoak dira:

1. Sekuentzia didaktiko bakoitzean jardueraren arabera lantzen diren gaitasun komunikatibo, testual eta linguistikoak zehaztu dira Sekuentzia didaktikoen hasieran taula gisara.
2. Sekuentzia didaktikoetan proposatzen diren jarduera mota eta haien izaera dibertsifikatu dira.
3. Jardueretan gaitasun gramatikalen lanketa zehatzagoa proposatu da.
4. Ahozkotzeari lotutako berariazko modulu bat egituratu da.
5. Eredu didaktikoak eta kontsignak doitu dira.
6. Hasierako egoeraren kontsigna berrikusi da Moodle bidezko SDe balizko zabalkundeari begira.
7. Sekuentzia didaktiko hauekin jarduteko oinarrizko formakuntza bat prestatu da ikastetxe eta maila bakoitzerako.
8. Ikasleen profil soziolinguistikoa eta ahozkoarekiko erakusten duten jarreraren inguruko datuak jasotzeko fitxa sortu da.

Behin Sekuentzia didaktikoak berrikusi eta berregituratuta, **pilotajea bi ikastetxetan** burutu da: batetik, **D ikastetxean** (2017tik proiektuan parte hartzen duen ikastetxea), eta bestetik, **B ikastetxean**, (LH5 eta LH6 atalean berria). Gogoratu behar da garai batean E ikastetxeak ere parte hartu zuela, baina azken urteetan ezin izan dela horien parte hartzea lortu. Edonola ere, **oso positiboa** izan

<sup>7</sup> Dolz-Mestre, J., & Silva-Hardmeyer, C. (2020). [Le dispositif séquence didactique pour enseigner les genres oraux. Bilan des recherches et perspectives](#) [Article scientifique]. *Recherches*, 73, 21-34.

<sup>8</sup> Colognesi, Stéphane ; Deschepper, Catherine ; Dejaegher, Charlotte. *Itinéraires comme dispositif d'enseignement/apprentissage de l'oral. Quand les élèves du primaire apprennent à réaliser des reportages audiovisuels*. In: Pascal Dupont, *Pratiques et outils de formation de l'enseignement de l'oral en contexte francophone*, Presses Universitaires du Midi : Toulouse 2020, p.119-133 <http://hdl.handle.net/2078.1/226729>

da Berba-lapikoko Sekuentzia didaktikoekin hain esperientzia ezberdinak dituzten bi eskolekin jardun ahal izana 2025ean material berregokituaren eraginkortasuna eta egokitasuna neurtzeko eta konparatzeko. Zehatzago esanda, onuragarria izan da bi eskola ezberdinetan esperimendatzea LH5 eta LH6ko Sekuentzia didaktikoak eta haien iritziak jasotzea; bata, D ikastetxeak, orain arteko materiala ezagututa, berritasunen egokitasuna baloratu ahal duelako eta, bestetik, Sekuentzia didaktiko horien berri lehenago izan ez duten irakasleen iritziarekin erkatu daitekeelako lehenengoan iritzia.

Oso labur, honakoak dira aurtengo esperimendazioaren inguruko emaitzak:

- **Sekuentzia didaktikoak zehatzak eta eraginkorrak** izan dira bi eskola testuinguruetan, eta proposatzen diren testu generoak ere egokiak ikusi dira bi ikastetxeetan. Irakasleei aukera ematen die malgu jokatzeko, beharren arabera: Sekuentzia didaktikoak luzatzeko bai laburtzeko aukera ematen dute. D ikastetxean jakintza arlo bakoitzeko gaitasunen lanketa txertatzen dute sakon; LH5en kasuan, matematika, fisika eta Geografiako edukiak lantzeko. B ikastetxearen kasuan, denbora oso laburra eta lehen aldiz landu dutelarik, eskaintako materialarekin Sekuentzia didaktiko laburragoak baina arrakastatsuak prestatu dituzte. Materialak nahiko malgua eta argia dirudi irakasleek beharrezko egokitzapen eta transposizioak egiteko.
- **Baliabide linguistikoaren lanketaren zehaztasunak oso positiboki baloratu dira;** ahozko testu horiek ekoizteko ikasleek behar dituzten baliabide gramatikal eta lexikoak eskurago jarri zaizkie.
- **Baiezta da testuaren egituraren araberako moduluen banaketa** komenigarria eta eraginkorra zaiela irakasle guztiei.
- **Ahazkotasunari lotutako berariazko modulua ontzat** jo da. Lanketa hori tarteka egiten zen aurreko bertsioetan; oraingoan, ordea, modulu bakarrean berariazko ahazketze alderdiak programatu dira.
- **LH5 mailaren kasuan, berrikusi egin behar da kontsigna** Moodle plataforman eskaintzeko. Aukera bat baino gehiago eskaini daitezke agian, era horretan, ikastetxeetako errealitatera egokitzeko.
- Itinerario/Ibilbide didaktikoetatik jasotako **entseguen proposamena gehiegiztat jo da.** Modulu bakoitzaren autoebaluaziorako errubrikak mantentzea eskatzen dute irakasleek. Gure aurreikuspena horixe zen, gehiegi zela, baina frogatu nahi izan da hala ere, ziurtatzeko ahazkoaren lanketaren inguruko berritasun zientifiko guztiak ez direla komenigarriak momentu honetan.
- **Eredu gida erabiltzen diren bideoek doitzea** behar dute.
- Irakasle batzuek, B ikastetxeetako bereziki, uste dute **irailean hasi behar dela ahozko Sekuentzia didaktiko horiek lantzen.**

Momentu honetan, bi ikastetxetan jaso diren 82 testu transkribatzen ari dira, horien azterketa egiteko. Azterketa horrekin lortu nahi da ikasleen aurrerapenak identifikatzea, baina bereziki gramatika eta morfosintaxiaren automatizazio mailan. Komunikazio eta testuaren egituraketa mailan aurreikusten dugu, aurreko esperimendazioetan bezala, hobekuntza nabarmenak izatea, baina SDen

eraginkortasuna maila mikroan doitzeko baliagarri izango diren emaitzetan sakondu da aldi honetan. Izan ere, Berba-lapiko proiektuaren hasierako esperimentaziotik nabarmena izan da ikasleek Sekuentzia didaktikoetan aurretestuetatik ondotestuetara egiten dituzten hobekuntzak, morfosintaxian eta lokailuen erabileran, adibidez.

2019ko uztaila bitarteko ikerketa lanarekin bilatzen da:

- Sekuentzia didaktikoak behin betiko egonkortzea eta erabili diren (edo baztertu diren) irizpideak justifikatzea.
- Helburu linguistikoetan eta horiek lantzeko metodologian sakontzea. Ahal dela, Sekuentzia didaktikoekin batera, testuaren ikuspegitik gramatika lantzeko gehigarriak eskaintzea (ergatiboa, lokailuak, aditzaren erabilera...), esperimentazioa oinarri izanda, eraginkorrak direla erakusten den heinean.
- Sekuentzia didaktiko haueko testu generoen lanketak eleaniztasunari begira zein gaitasun diskurtsiboren transferentziarako ibilbidea eskaintzen duen azaltzea (dela ahozkoa/idatzizkoa edo hizkuntzen artekoa).
- Ahozkotasunaren didaktikaren esparruan irakasleen formakuntzarako printzipioak eta gakoak eskaintzea, ikerketa proiektuak izan duen elkarlan ikerketa-ekintzaren ikuspegitik beti ere.

### 3 ONDORIO NAGUSIAK

Jarraian 2025eko ikerketan ateratako **hizkuntza errutinari** buruzko ondorio nagusiak jaso dira. Alde batetik, **ikasleei begira**, hona hemen ohar esanguratsu batzuk:

- **Hizkuntza errutinen metodologia eraginkorra dela** erakutsi dute datuek. Ikasleen ahozko hizkuntzan **hobekuntzak** antzeman dira hiru ikastetxeetan.
- Metodologiak **ikasleen rola aldaketa** eragin du. Metodologiak ikasleen **ahozko gaitasun sortzailea** eragin du, horiek subjektu pasibotzat hartu ordez, **subjektu aktibo** bezala aitortuz. Ikasleek benetako **"komunikatzeko beharra"** azaldu dute eta ahoz sortzen aritu dira. Dinamiketan, **hitz egiteko denbora gehiago** eskaini zaie eta parte hartzaile nagusiak bihurtu dira saioetan.
- **Diskurtsoa eraikitzeke estrategiak ugaritu** egin dira ikasleen artean. Horien artean hauek azpimarra daitezke: ikasleak norberaren eta baita ikaskideen diskurtsoan ere autozuzenketak bideratzea, Berba-lapiko metodologiaren bitartez ikasitakoa bere diskurtsoan txertatu nahian (nahiz eta diskurtso-estategietan oraindik ikasleak euren diskurtsoa birformulatzeko eta zehazteko zailtasunak dituzten).
- Metodologia ostean **euskaraz lehen baino errazago** egiten dutela ikusi da ikasleengan. Hobekuntza ikusi da ez bakarrik ikasleen ahozko gaitasunean; hizkuntzarekiko jarreran antzeman da aldaketa hori: *"nik Berba-lapiko hasieran ez nekien euskeraz, baina orain Berba-lapiko egiten dudanean ondo hitz egiten dut"* (A ikastetxea, LH3). Gainera, **metodologian oso gustura** aritu dira ikasleak eta horrela adierazi dute: *"niri gustatu zitzaidan jolasak grabatu genituenean, horrela zuzentzen zizkiguten gauzak eta gehiago ikasten genuen"* (C ikastetxea, LH3).

Ikerketak **irakasleen inguruan** ere ematen du informazio asko. Prestakuntza eta jarraipen estua egin zaie eta, lehen aipatu dugun bezala, balorazioa egiten zaie amaieran. Azkenean, haien papera oso garrantzitsua da metodologia ondo inplementatzeko eta ikasleen ahozkoan eragiteko. Beraz, beraiengan ere jarri dugu fokua.

- Irakasleak **ahozko hizkuntzan eragiteko estrategien inguruko formakuntza jaso dute**. Ahozko hizkuntza lantzeko sistematizazioaren garrantzia ikusi dute eta ikasleekin **ahozkotasuna lantzeko estrategia berriak** jaso dituzte. Horren harira, esku-hartzerako garaian fokua non jarri behar duten ikasi dutela azpimarratzen dute: *"formakuntzan esan ziguten, adibidez, ikasleak akatsak egiten dituenen ez zuzentzeko denbora guztian eta zentratzeko 2-3 pautatan. Eta zuzenketak egiteko bestelako estrategiak erabiltzea, ba errepikapenen bidez etab."* (B ikastetxea, LH3). Gainera, metodologia honetan prestakuntzaren garrantzia egiaztatu da; izan ere, irakasle ordezkoa egon den gelan, ikasleen aurrerapen txikiagoa ikus da azterketan.

- Metodologiaren emaitzek **ikaslea ahalduntzen** lagundu dute. Irakasleek azaldu duten bezala, ikasleek metodologian ikasitakoa barneratu dute eta **ikasitakoak ikasleei segurtasuna eman** diela ondorioztatzen dute.

Azkenik, **sekuentzia didaktikoari** buruzko ondorio nagusiak jaso dira jarraian:

- 2025eko esperimenezko, **berrikuntzen artean**, gaitasun komunikatibo-testual-linguistikoaren taula, jardueren dibertsifikazioa, gramatika-lanketa zehatzagoa eta ahozkotasanari buruzko modulu espezifikoak txertatu dira, kontsignak eta eredu didaktikoak doitzearekin batera.
- Esperimentazioa D ikastetxean (esperientziaduna) eta B ikastetxean (berria LH5-LH6n) egin da, **bi testuingurutan** materialaren egokitasuna eta eraginkortasuna neurtu eta konparatzeko.
- Oro har, Sekuentzia didaktikoak **zehatzak, eraginkorrak eta malguak** direla baieztatu da: luzatu edo laburtu daitezke, eta bi ikastetxeetan langai izan diren testu-generoak egokiak izan dira.
- Bereziki **positiboki baloratu** dira **baliabide linguistikoaren zehaztasuna eta moduluen banaketa** (testu-egituraren arabera), eta berriazko **ahozkotze modulua** ontzat jo da.
- Hobetze bidera, Moodleko kontsigna berrikusi, entseguen proposamena sinplifikatu (errubrikak mantenduta), bideoak doitu eta Sekuentzia didaktikoak irailean hasia azpimarratu da.